LEGEAK 22 LEYES

# Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorra

# Estatuto General de los Procuradores de los Tribunales de España

LEGEAK
LEYES

*CIP. Unibertsitateko Biblioteka/Biblioteca Universitaria*

**España. Ministerio de Justicia.**

Espainiako auzitegietako prokuradoreen estatutu orokorra [Recurso electrónico] = Estatuto general de los procuradores de los tribunales de España / Ixusko Ordeñana Gezuraga …[et al.] ; Patxi Petrirena Altzuguren, itzultzailea. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2018]. – 1 recurso en línea : PDF (74 p.). – (Legeak = Leyes ; 22)

Texto bilingüe en euskara y español.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-955-4

1. Procuradores. 2. Personal judicial – España. I. Ordeñana Gezuraga, Ixusko, coaut. II. Petrirena Altzuguren, Patxi, trad. III. Título: Estatuto general de los procuradores de los tribunales de España.

347.964.1(460)(094)

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.ehu.eus/argitalpenak - editorial@ehu.eus

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-9082-955-4

# ESPAINIAKO AUZITEGIETAKO PROKURADOREEN ESTATUTU OROKORRA

---

# ESTATUTO GENERAL DE LOS PROCURADORES DE LOS TRIBUNALES DE ESPAÑA


Ixusko Ordeñana Gezuraga
Iñaki Esparza Leibar
Patxi Etxeberria Guridi
Katixa Etxebarria Estankona
Goizeder Otazua Zabala
Miren Josune Pérez Estrada
*UPV/EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakasleak*

Patxi Petrirena Altzuguren (Elhuyar Fundazioa)
*Itzultzailea*

Joseba Ezeiza Ramos
*UPV/EHUko Euskara Zerbitzua*

Ana Leturia Navaroa
*UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea*
*Bildumaren koordinatzailea*



eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# ÍNDICE

# AURKIBIDEA

**Prólogo.** *Patxi Etxeberria Guridi* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 10

**Estatuto General de los Procuradores de los Tribunales de España** . . . . . . . 15

Título I. Disposiciones generales . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
Título II. De los procuradores . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 18

Capítulo I. De los requisitos para ejercer la profesión de Procurador 18
Capítulo II. De las incompatibilidades . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 20
Capítulo III. De los deberes . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22
Capítulo IV. De los derechos . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 28
Capítulo V. De las fianzas . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 30
Capítulo VI. De las responsabilidades . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

Sección 1.ª De la responsabilidad civil y penal . . . . . . . . . . . . . . 34
Sección 2.ª De la responsabilidad disciplinaria . . . . . . . . . . . . . . 34

Capítulo VII. De las ausencias, sustituciones y ceses en el ejercicio de la profesión . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34
Capítulo VIII. De la colaboración profesional . . . . . . . . . . . . . . . . 38

Título III. De los colegios de procuradores . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40

Capítulo I . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40
Capítulo II. De la organización y gobierno de todos los Colegios . . . 42
Capítulo III. De los colegiados . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 52
Capítulo IV. De los recursos económicos . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 54
Capítulo V. Del Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 56

Título IV. De la responsabilidad disciplinaria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 56

Capítulo I. De las infracciones . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 56
Capítulo II. De las sanciones . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 60
Capítulo III. Del procedimiento sancionador . . . . . . . . . . . . . . . . . 60

**Hitzaurrea.** *Patxi Etxeberria Guridi* . . . . . . . . . . 11

**Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorra** . . . . . . . . . . 15

I. titulua. Xedapen orokorrak . . . . . . . . . . 17
II. titulua. Prokuradoreak . . . . . . . . . . 19

I. kapitulua. Prokuradore-lanbidean jarduteko eskakizunak . . . . . . . . . . 19
II. kapitulua. Bateraezintasunak . . . . . . . . . . 21
III. kapitulua. Eginbeharrak . . . . . . . . . . 23
IV. kapitulua. Eskubideak . . . . . . . . . . 29
V. kapitulua. Fidantzak . . . . . . . . . . 31
VI. kapitulua. Erantzukizunak . . . . . . . . . . 35

1. atala. Erantzukizun zibila eta penala . . . . . . . . . . 35
2. atala. Diziplina-erantzukizuna . . . . . . . . . . 35

VII. kapitulua. Lanbidearen jarduneko absentziak, ordezkapenak eta kargugabetzeak . . . . . . . . . . 35
VIII. kapitulua. Profesionalen arteko lankidetza . . . . . . . . . . 39

III. titulua. Prokuradore-elkargoak . . . . . . . . . . 41

I. kapitulua . . . . . . . . . . 41
II. kapitulua. Elkargo guztien antolaketa eta gobernua . . . . . . . . . . 43
III. kapitulua. Elkargokideak . . . . . . . . . . 53
IV. kapitulua. Baliabide ekonomikoak . . . . . . . . . . 55
V. kapitulua. Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusia . . . . . . . . . . 57

IV. titulua. Diziplina-erantzukizuna . . . . . . . . . . 57

I. kapitulua. Arau-hausteak . . . . . . . . . . 57
II. kapitulua. Zehapenak . . . . . . . . . . 61
III. kapitulua. Zehapen-prozedura . . . . . . . . . . 61

Título V. De la Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España . . . . . . . . . . 64

Disposición transitoria . . . . . . . . . . 66
Disposición adicional . . . . . . . . . . 66
Disposición final . . . . . . . . . . 68

**Léxico** . . . . . . . . . . 72

V. titulua. Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitatea . . . . . . 65

Xedapen iragankorra . . . . . . 67
Xedapen gehigarria . . . . . . 67
Amaierako xedapena . . . . . . 69

**Lexikoa** . . . . . . 70

# Prólogo

De entre los agentes u operadores que intervienen en el desempeño de la administración de justicia destacan los procuradores de los tribunales. En el ejercicio de la potestad jurisdiccional asumen el máximo protagonismo, como no podía ser de otra manera, quienes ostentan la titularidad de dicha potestad, esto es, los jueces y magistrados. Sin embargo, el juzgar y hacer ejecutar lo juzgado dirimiendo posibles conflictos entre partes enfrentadas, implica la intervención de una pluralidad de agentes que tienen como función primordial asegurar en la medida de lo posible que la tutela judicial, ya sea como sujeto activo, ya como sujeto pasivo, cumpla las exigencias derivadas de la efectividad exigible a la misma.

En este ámbito de actuación, junto con los jueces y magistrados intervienen en el marco del proceso judicial los abogados, los letrados de la Administración de Justicia, los miembros del Ministerio Fiscal, los abogados del Estado, etc. y también, evidentemente, los procuradores, integrantes todos ellos de la condición de personal colaborador con la Administración de Justicia.

Teniendo en cuenta la complejidad técnica de las actuaciones procesales, así como las graves consecuencias jurídicas que de ellas se derivan, el ordenamiento jurídico español ha querido que en las mismas intervengan las partes, no directamente, sino a través de sujetos que ostentan la capacitación y formación profesional necesaria. Las partes procesales intervienen en el proceso, pues, representadas por el procurador. Es éste quien pide al tribunal en nombre de la parte y quien recibe los actos del tribunal también en su nombre. Esta representación se concede al procurador mediante el correspondiente poder. Junto a su función de representante activo y pasivo de las partes, tienen encomendada

# Hitzaurrea

Justiziaren Administrazioan parte hartzen duten agente eta operadoreen artean, auzitegietako prokuradoreak nabarmentzen dira. Jurisdikzio-ahalmena egikaritzean, epaile eta magistratuei dagokie protagonismo nagusia, ezinbestekoa denez, haiek baitira ahalmen horren titular edo jabe. Halere, epaitu eta epaitutakoa betearazteak, alderdien artean izan daitezkeen gatazkak konponduz, agente ugariren parte-hartzea dakar berekin. Horien guztien funtzio nagusia da bermatzea betetzen direla babes judizialak eta haren eraginkortasunak exijitzen dituzten eskakizun eta baldintzak, nahiz subjektu aktibo gisa, nahiz subjektu pasibo gisa aritu.

Beraz, jarduketa-esparru honen inguruan, ohikoa da epaile eta magistratuen esku-hartzearekin batera hauena nabarmentzea prozesu judizialetan: abokatuak, Justizia Administrazioko letraduak, Ministerio Fiskaleko kideak, Estatuaren abokatuak, eta abar. Zerrenda luze horri gehitu behar zaio, nola ez, prokuradorearen figura, guztiek osatzen baitute Justizia Administrazioarekiko pertsonal kolaboratzailearen kategoria.

Kolaboratzaile horien guztien parte-hartzeak badu izateko arrazoi pisutsu bat: jarduketa prozesalen konplexutasuna, alde batetik, eta jarduketa horietatik eratortzen diren ondorio larriak, bestetik. Horregatik nahi izan du ordenamendu juridikoak gaitasun eta formakuntza profesional egokia duten profesionalen bidez aritzea alderdiak jarduketa prozesal horietan, eta ez berak zuzenean. Beraz, prozesuan jardun ahal izateko, alderdi prozesalek beren ordezkaritza prokuradoreen esku jartzen dute, eta prokuradoreok arituko dira haien izenean auzitegien aurrean, hau da, haien eskaerak aurkeztuz beren izenean eta auzitegien ebazpenak jasoz halaber beren izenean. Prozesuan aritzeko ordezka-

los procuradores una importante responsabilidad en la comunicación y notificación de actos procesales.

Hasta tal punto se ha estimado esencial la intervención del procurador en el proceso, que de carecer los ciudadanos de los recursos económicos suficientes para recabar la tutela judicial efectiva garantizada en la Constitución, dispone el ordenamiento la asistencia jurídica gratuita que comprende entre otros conceptos la representación mediante procurador.

Ahora bien, las mismas razones que justifican la intervención del procurador en el proceso aconsejan que la misma no sea preceptiva si el asunto es de escasa cuantía o complejidad o la pena no es lo suficientemente grave. En caso contrario, los costes económicos que conlleva la intervención de aquél harían gravosa la actuación judicial de los derechos e intereses de los ciudadanos.

No podemos concluir esta presentación relativa a la profesión de procurador y del Estatuto que la regula sin hacer mención a dos cuestiones, una material y otra formal. En lo que respecta a la primera, es importante destacar el proceso de cambio profundo que se avecina acerca de dicha profesión. El empleo de sistemas telemáticos o electrónicos en la práctica de los actos de comunicación y algunas tentativas prelegislativas en tal sentido hacen presagiar que las funciones del procurador habrán de reformularse tarde o temprano. Como botón de muestra podemos mencionar las nuevas responsabilidades asumidas por los Colegios de Procurados como entidades especializadas en la realización de bienes dentro del proceso de ejecución. Por otra parte, e incidiendo en las formas (cuestión de la que entendemos algo los procesalistas), queremos mostrar nuestra alegría por presentar en euskera un texto de la trascendencia mentada.

PATXI ETXEBERRIA GURIDI
Catedrático Derecho Procesal UPV/EHU

ritza hori dagokion ahalordearen bidez ematen zaio prokuradoreari. Alderdien ordezkari aktibo nahiz pasibo funtzio horrekin batera, eta horrekin lotuta, prokuradoreak erantzukizun nabarmena du bere eskutan egintza prozesalen komunikazio eta jakinarazpenetan.

Hain berezko eta funtsezko jotzen denez prokuradorearen parte-hartzea prozesuan, ordenamendu juridikoak erantzun bat aurreikusi behar dio herritarrek nahiko baliabide ekonomikorik ez dutenean Espainiako Konstituzioak jasotzen duen babes judizial eraginkorra egikaritu nahi izanez gero. Arazo horri aurre egiteko, ordenamenduak doako laguntza juridikoa izateko eskubidea jasotzen du eta eskubide horrek barne hartzen du prokuradorearen bidez ordezkaritza izatea —doakoa—.

Halere, prozesuan zehar prokuradoreak jardutea bidezkotzen duten arrazoi berberak galdatzen du parte-hartze hori nahitaezkoa ez izatea gatazkaren arrazoia munta edo konplexutasun txikikoa denean edo eskatzen den zigorra nahiko larria ez denean. Egoera horietan prokuradorearen esku-hartze nahitaezkoak prozesuaren kostuak handiagotuko lituzke eta azken finean babes judizial eraginkorra norberaren eskubide eta interesen mesedetan oztopatu.

Prokuradorearen lanbideari buruzko eta hura arautzen duen estatutu orokorrari buruzko aurkezpen honi amaiera eman aurretik, bi konturi erreparatu behar diogu, bata materiala eta bestea formala. Lehenengoaren eremuan, bereziki garrantzitsua da lanbide horren inguruan datozen aldaketa sakonak mahaigaineratzea. Prokuradoreak berak zuzenean egin eta jasotzen zituen jakinarazpen eta komunikazio-egintzak alde batera utzi eta orain bide telematiko eta elektroniko bidez egiten dira. Aginte politikoek ere adierazgarriak diren lege-proposamenak egin dituzte, non prokuradoreen berezitasunak gutxitzen diren eta abokatuen esku uzten diren haien funtzioak. Horrek esan nahi du prokuradoreen funtzioak birplanteatu behar direla lehenago edo beranduago. Horren adierazgarri da prokuradoreen elkargoei nolako protagonismoa eman zaien erakunde espezializatu moduan ondasunak diru bihurtzean exekuzio prozesuan. Bestalde, eta oraingoan formetan indar eginez —prozesalistok egin ohi dugun moduan—, gure poztasuna adierazi nahi dugu testu juridiko hain garrantzitsu hau euskaraz aurkezteagatik.

PATXI ETXEBERRIA GURIDI
UPV/EHUko Zuzenbide Prozesaleko katedraduna

# ESPAINIAKO AUZITEGIETAKO PROKURADOREEN ESTATUTU OROKORRA

---

# ESTATUTO GENERAL DE LOS PROCURADORES DE LOS TRIBUNALES DE ESPAÑA

## TÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**

La Procuraduría es una profesión liberal e independiente que podrán ejercer cuantos, reuniendo las condiciones exigidas en este Estatuto, soliciten y obtengan su incorporación a un Colegio de Procuradores.

**Artículo 2**

Son Procuradores a efectos del presente Estatuto, los que, reuniendo las condiciones exigidas en el mismo, puedan encargarse mediante apoderamiento conferido adecuadamente de representar los derechos e intereses de su poderdante ante los Tribunales de Justicia.

**Artículo 3**

La comparecencia ante los Juzgados y Tribunales se efectuará por medio de Procurador en los casos y en la forma que determinen las Leyes.

**Artículo 4**

La representación del Procurador se acreditará por medio de apoderamiento suficiente otorgado conforme a las disposiciones legales.

I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua**

Prokuradoretza lanbide liberal eta independentea da, eta Estatutu honetan jasotako baldintzak betetzen dituen edonork jardun dezake hartan, baldin eta prokuradoreen elkargo batean sartzea eskatzen eta lortzen badu.

**2. artikulua**

Estatutu honetarako, prokuradoreak dira hemen eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eta, behar bezala emandako ahalordetzearen bidez, ahalorde-emailearen eskubideak eta interesak justizia-auzitegietan ordezka ditzaketen pertsonak.

**3. artikulua**

Epaitegi eta auzitegietan, prokuradore baten bitartez egingo da agerraldia, legeriak ezartzen dituen kasu eta moduetan.

**4. artikulua**

Prokuradorearen ordezkaritza lege-xedapenen arabera emandako behar adinako ahalordearen bidez egiaztatuko da.

Las relaciones entre el Procurador y su cliente se regirán por las normas aplicables al mandato y por las disposiciones contenidas en el presente Estatuto.

# TÍTULO II
# DE LOS PROCURADORES

## CAPÍTULO I
## De los requisitos para ejercer la profesión de Procurador

### Artículo 5

Para ser Procurador son necesarias las siguientes condiciones generales de aptitud:

1. Ser de nacionalidad española o de la de alguno de los Estados miembros de las Comunidades Europeas.
2. Ser mayor de edad.
3. Tener el título de Licenciado en Derecho.
4. Haber obtenido el título de Procurador, que será expedido por el Ministerio de Justicia a quienes, reuniendo las condiciones exigidas, así lo solicitaren.

### Artículo 6

Para el ejercicio de la profesión de Procurador se requiere:

a) Haber obtenido la inscripción en el Colegio, previo abono de la cuota de ingreso y formalización de alta en la Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España, en la forma que determina el artículo 73 del presente Estatuto.
b) Haber constituido debidamente la fianza exigida por el presente Estatuto.
c) Prestar juramento o promesa ante la Sala de Gobierno del Tribunal Supremo u Órgano de la Audiencia o Juzgado que corresponda, según donde se proponga ejercer la profesión el interesado.

Prokuradorearen eta haren bezeroaren arteko harremana mandatuari aplikagarri zaizkion arauek eraenduko dute, bai eta Estatutu honetan jasotako xedapenak ere.

# II. TITULUA
# PROKURADOREAK

## I. KAPITULUA
## Prokuradore-lanbidean jarduteko eskakizunak

### 5. artikulua

Prokuradore izateko, gaitasun-baldintza orokor hauek bete behar dira:

1. Espainiar nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko kide den estaturen batekoa.
2. Adin nagusikoa izatea.
3. Zuzenbideko lizentziadunaren titulua izatea.
4. Prokuradore-titulua izatea; titulu hori Justizia Ministerioak ematen die derrigorrezko baldintzak betetzen dituzten eta titulua eskatzen duten pertsonei.

### 6. artikulua

Prokuradore-lanbidean jarduteko, beharrezkoa da:

a) Elkargoan erregistratuta egotea; horretarako, aldez aurretik sarrerako kuota ordaindu behar da, eta alta eman Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitatean, Estatutu honen 73. artikuluak zehazten duen moduan.
b) Estatutu honek finkatzen duen fidantza behar bezala eratu izatea.

c) Zin edo promes egitea Auzitegi Goreneko gobernu-salaren edo dagokion auzitegi edo epaitegiko organoaren aurrean, interesdunak lanbidean non jardun nahi duen.

**Artículo 7**

No podrán ser dados de alta como Procuradores:

1. Los procesados o encartados en causa criminal, salvo que lo fueren por delitos culposos, mientras no se alce procesamiento o encartamiento.
2. Los condenados en causa criminal por delito doloso a pena superior a presidio o prisión menores, o por cualquier forma de delito y a cualquier pena cuando se trate de los de falsedad, estafa o cualquier otro de los que por su índole o naturaleza afectasen al prestigio y decoro de la profesión, mientras no obtengan su rehabilitación.

3. Los sancionados disciplinariamente con suspensión y expulsión mientras no hayan cumplido la sanción u obtengan la rehabilitación respectiva.

## CAPÍTULO II

### De las incompatibilidades

**Artículo 8**

La profesión de Procurador es incompatible:

1. Con el ejercicio de la función judicial o fiscal, cualquiera que sea su denominación y grado, con el desempeño del Secretariado de los Juzgados o Tribunales, y con todo empleo o función auxiliar o subalterna en los mismos.
2. Con el ejercicio de la Abogacía, salvo en los casos de habilitación previstos en el presente Estatuto.
3. Con el ejercicio de la profesión de Agente de Negocios o Gestor Administrativo y Agente de la Propiedad Inmobiliaria, o con cualquiera otra profesión que hubiere sido declarada incompatible con el ejercicio de la Procuraduría.
4. Con cualquier empleo remunerado en los Colegios de Procuradores y Abogados.
5. Con las restantes funciones o empleos de la Administración que hayan sido declaradas legalmente incompatibles con la Procuraduría.
6. El Procurador no podrá ejercer su profesión en el Juzgado o Tribunal donde desempeñe su función de Magistrado, Juez, Fiscal, Secretario y

**7. artikulua**

Ezin egongo dira prokuradore gisa alta emanda:

1. Kausa kriminal batean prozesaturik edo enkartaturik daudenak —erruzko delituengatik denean izan ezik—, harik eta prozesamendu edo enkartamendu hori altxatzen den arte.
2. Kausa kriminal batean dolozko delituren batengatik espetxealdi txikia baino handiagoa den zigor batera kondenaturik daudenak, edo edozein motatako delituengatik eta edozein zigorretara kondenaturik daudenak, delitu hori faltsutasuna, iruzurra edo lanbidearen ospeari eta izen onari erasaten dion beste edozein baldin bada, harik eta birgaitzea lortzen duten arte.
3. Diziplina-zehapen gisa geldiera eta kanporatzea jaso dutenak, harik eta zehapena betetzen edo dagokion birgaitzea lortzen duten arte.

## II. KAPITULUA

### Bateraezintasunak

**8. artikulua**

Prokuradorearen lanbidea bateraezina da hauekin:

1. Epaile- edo fiskal-eginkizunetan jardutea, edozein izendapenekin eta edozein gradutan delarik ere; epaitegietako edo auzitegietako idazkari-lanak betetzea; horietan edozein laguntzaile- edo mendeko-enplegu edo -eginkizun betetzea.
2. Abokatutzan jardutea, Estatutu honetan aurreikusten diren gaikuntza-kasuetan izan ezik.
3. Negozio-agente edo administrazio-kudeatzailearen eta higiezinen jabetzako agentearen lanbidean jardutea, eta prokuradoretzarekin bateraezintzat jo den beste edozein lanbidetan jardutea.

4. Prokuradore- eta abokatu-elkargoetan ordainpeko edozein enplegu izatea.
5. Lege aldetik prokuradoretzarekin bateraezintzat jo diren Administrazioko gainerako eginkizun edo enpleguetako bat izatea.
6. Prokuradoreak ezingo du bere lanbidea bete bere senide edo senitarteko batek magistratu, epaile, fiskal, idazkari eta ofizial laguntzaile nahiz

Oficial, Auxiliar o Subalterno, familiar o pariente dentro del segundo grado de consanguinidad o afinidad.

**Artículo 9**

Cuando concurriere en algún Colegiado cualquier causa de incompatibilidad de las mencionadas anteriormente, el Decano del mismo requerirá al interesado para que en el plazo de quince días opte por una de las situaciones incompatibles con renuncia expresa de las demás, y si transcurriese dicho plazo sin atender dicho requerimiento, la Junta de Gobierno acordará la suspensión del Procurador en el ejercicio de su cargo mientras subsista la incompatibilidad, comunicándolo a los Juzgados y Tribunales en que el Procurador ejerciere su profesión.

Desaparecida la incompatibilidad, el Procurador, previa justificación de dicho extremo, podrá instar de la Junta de Gobierno del Colegio correspondiente el alzamiento de la suspensión.

**Artículo 10**

Contra los acuerdos de suspensión adoptados por la Junta de Gobierno de los Colegios de Procuradores conforme al artículo anterior, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España en el plazo de quince días, con sujeción al régimen establecido en la Ley de Procedimiento Administrativo.

Contra la resolución del Consejo General sólo cabrá el recurso contencioso-administrativo con arreglo a las normas contenidas en la Ley Reguladora de esta Jurisdicción.

## CAPÍTULO III

## De los deberes

**Artículo 11**

Es deber primordial del Procurador colaborar con los Órganos jurisdiccionales en la noble función pública de administrar justicia, actuando con profesionalidad, honradez y lealtad en la defensa de los intereses de sus representados.

A este fin, en sus relaciones con el Órgano jurisdiccional, y con sus compañeros, y con el Letrado y su cliente, será probo, leal y veraz.

Con la parte contraria mantendrá un trato correcto en todo momento.

mendeko gisa diharduen epaitegi edo auzitegietan, senide horrek bigarren gradurainoko odolkidetasuna edo kidetasuna baldin badu.

**9. artikulua**

Elkargokide batek aipaturiko bateraezintasun-kausaren bat badu, elkargo horretako dekanoak hamabost eguneko epea emango dio interesdunari bateraezinak diren egoera horietako bat aukeratzeko eta beste guztiei espresuki uko egiteko. Epe hori igarotakoan interesdunak eskakizun hori bete ez badu, gobernu-batzarrak geldieran utziko du prokuradore hori bere karguan, bateraezintasunak dirauen artean, eta hala jakinaraziko die prokuradoreak jardun ohi duen epaitegi eta auzitegiei.

Bateraezintasuna desagertutakoan, prokuradoreak, hori hala dela justifikatu ondoren, bere jardunaren geldiera bertan behera utz dezala eskatu ahal izango dio dagokion elkargoko gobernu-batzarrari.

**10. artikulua**

Aurreko artikuluari jarraituz prokuradore-elkargoetako gobernu-batzarrak ezartzen dituen geldieren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Espainiako Auzitegietako Prokuradore Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusiaren aurrean, hamabost eguneko epean, Administrazio Prozeduraren Legean ezarritako araubidearekin bat etorriz.

Kontseilu Nagusiaren ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezartzeko aukera baizik ez da egongo, jurisdikzio hori arautzen duen legean jasotako arauei jarraikiz.

## III. KAPITULUA

## Eginbeharrak

**11. artikulua**

Prokuradorearen eginbehar nagusia da jurisdikzio-organoekin lankidetzan jardutea justizia administratzeko zeregin publiko noblean, ordezkatzen dituen pertsonen interesak defendatzean profesionaltasunez, zintzotasunez eta leialtasunez jokatuz.

Horretarako, zintzoa, leiala eta egiatia izango da jurisdikzio-organoarekin, lankideekin, abokatuarekin eta haren bezeroarekin.

Kontrako alderdiarekin jokabide zuzena izango du une oro.

**Artículo 12**

Es obligación del Procurador solidarizarse con el espíritu de asociación y hermandad que tutelan los Colegios de Procuradores, evitando la deslealtad y la competencia ilícita hacia sus compañeros.

Queda prohibido el anuncio o difusión de sus servicios directamente o a través de cualquier medio publicitario.

**Artículo 13**

Los Procuradores están obligados a representar, gratuitamente, a los litigantes pobres en los casos previstos por la Ley, a cuyo fin cada Colegio llevará un registro para proceder al reparto de dichos asuntos entre sus colegiados en ejercicio, en la forma que determine reglamentariamente el propio Colegio.

**Artículo 14**

Además son también deberes del Procurador:

1. Presentar oportunamente el poder que tenga para comparecer en juicio o devolverlo si no lo aceptare tan pronto como sea posible, para que no sea perjudicado el poderdante.
2. Seguir el juicio mientras no hayan cesado en su encargo por alguna de las causas que se expresan en la Ley Orgánica del Poder Judicial.
3. Transmitir al Abogado elegido por su cliente o por ellos mismos todos los documentos, antecedentes e instrucciones que les remitan, o que ellos mismos puedan adquirir, haciendo cuanto conduzca a la defensa de su poderdante, bajo la responsabilidad que las Leyes impongan al mandatario.
   Cuando no tuvieren instrucciones o fueren insuficientes las que se les hubieren dado, hacer lo que requiera la naturaleza o índole del negocio.
4. Pagar los gastos que se causaren a su instancia.
5. Tener al cliente y Letrado siempre al corriente del curso del negocio que se les hubiere confiado.
6. Firmar todas las pretensiones que se presenten a nombre del cliente.
7. Oír y firmar los emplazamientos, citaciones y notificaciones de cualquier clase, incluidas las de sentencias, teniendo estas actuaciones la misma fuerza que si interviniera en ellas directamente el poderdante. No se admitirá la respuesta de que las expresadas diligencias se entiendan con éste.

**12. artikulua**

Prokuradorearen betebeharra da prokuradore-elkargoek zaintzen duten elkartze- eta senidetasun-espirituarekin bat egitea, bere kideekiko desleialtasunak eta lehia ez-zilegia saihestuz.

Debeku du bere zerbitzuak zuzenean edo edozein publizitate-bitartekoren bidez iragartzea edo zabaltzea.

**13. artikulua**

Prokuradoreek doan ordezkatu behar dituzte auzilari behartsuak legeak ezartzen dituen kasuetan; horretarako, elkargo bakoitzak erregistro bat izango du, auzi horiek jardunean dauden elkargokideen artean banatzeko, elkargoak bere araudiaren arabera zehazten duen bezala.

**14. artikulua**

Horrez gain, prokuradorearen eginbeharrak dira hauek ere:

1. Epaiketan agertzeko duen ahalordea behar bezala aurkeztea edo, onartu ezean, ahal den azkarrena itzultzea, ahalorde-emaileari kalterik ez eragiteko.
2. Epaiketan jarraitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoan adierazten diren kausetako bat dela-eta enkargua bertan behera geratzen ez den artean.
3. Bezeroak edo berak aukeratutako abokatuari helaraztea bidaltzen dizkieten edo beren kabuz eskuratzen dituzten dokumentu, aurrekari eta jarraibide guztiak, eta ahalorde-emailearen defentsa ahalbidetzen duen guztia egitea, legeek mandatariari ezartzen dioten erantzukizunaren pean.
   Jarraibiderik ematen ez zaienean edo eman zaizkienak nahikoak ez direnean, negozioaren izaerak edo ezaugarriek eskatzen dutena egitea.
4. Berak sorrarazten dituen gastuak ordaintzea.
5. Bere esku utzi den negozioaren nondik norakoen jakinaren gainean edukitzea beti bezeroa eta abokatua.
6. Bezeroaren izenean aurkezten diren uzi guztiak sinatzea.
7. Era guztietako epatzeak, zitazioak eta jakinarazpenak entzun eta sinatzea, sententziak barne; zuzenean ahalorde-emaileak esku hartu balu izango zuketen indar bera izango dute jarduera horiek. Ez da onartuko aipaturiko eginbideak ahalorde-emailearekin egin behar direla erantzutea.

8. Asistir a todas las diligencias y actos para los que las Leyes lo prevengan.
9. Llevar un libro de conocimientos de negocios pendientes, y otros de cuentas con los litigantes, con los Abogados y con los Auxiliares y Subalternos que devenguen honorarios o derechos.

10. Dar a sus clientes cuentas documentadas de los gastos judiciales e inversión de las cantidades recibidas.
11. Cumplir exactamente las obligaciones que las Leyes le impongan en su actuación profesional, y en las que en el orden corporativo se determinan en este Estatuto y en el del Colegio al que pertenezcan.
12. Residir en el territorio o demarcación judicial en que haya de actuar, debiendo en todo caso mantener despacho abierto en la misma localidad donde tuvieren su sede el Colegio correspondiente, o el Juzgado en el que se ejerza la profesión.
13. Llevar un libro registro de conocimiento de asuntos, de forma que en él se reflejen todos los datos precisos sobre los mismos.
14. Rendir cuentas al cliente, con especificación y detalle de las cantidades percibidas de éste y de los pagos realizados por su cuenta, precisando exactamente los conceptos e importe correspondientes.

15. Guardar el secreto profesional de cuantos hechos, documentos y situaciones relacionadas con sus clientes hubiese tenido noticia por razón del ejercicio de su profesión, cuyo secreto alcanzará igualmente a los hechos que el Procurador conozca por pertenecer a la Junta de Gobierno o al Consejo General, y asimismo, a aquellos de los que tenga conocimiento como asociado-colaborador de otro compañero.
    Cuando se invoque el secreto profesional, el Procurador podrá ampararse en las Leyes reguladoras de su ejercicio para demandar el pleno respeto de su derecho conforme a la Ley.
    Cuando el Procurador estime necesario salvar su responsabilidad ante cualquier escrito firmado por letrado, podrá anteponer a su firma la frase siguiente: «Al solo efecto de representación».

16. Satisfacer dentro de los plazos señalados las cuotas ordinarias o extraordinarias acordadas por su Colegio, así como las demás cargas obligatorias, entre ellas las dispuestas por la Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España y las del Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España.

8. Legeek aurreikusten dituzten eginbide eta ekitaldi guztietan bertaratzea.
9. Bere ardurapean dauden negozioak liburu batean erregistratzea, eta beste kontu-liburu batzuetan, berriz, auzilariak, abokatuak eta ordainsariak edo eskubideak irabazten dituzten laguntzaile eta mendekoak erregistratzea.
10. Gastu judizialei eta jasotako kopuruen inbertsioari buruzko kontu dokumentatuak ematea bezeroei.
11. Legeak bere jarduera profesionalean ezartzen dizkion eginbeharrak zehatz-mehatz betetzea, bai eta alderdi korporatibotik Estatutu honetan eta dagokion elkargoarenean zehazten direnak ere.
12. Jardun behar duen lurraldean edo mugape judizialean bizi izatea, eta betiere bulego bat zabalik edukitzea dagokion elkargoak egoitza duen herrian edo prokuradore gisa dihardduen epaitegia dagoen herrian.

13. Bere ardurapeko gaien erregistro-liburu bat eramatea, eta gai horien inguruko datu zehatz guztiak han jasotzea.
14. Bezeroari harengandik jasotako diru-kopuruen kontu ematea, zehaztapenekin eta xehetasunez, bai eta bere kontura egindako ordainketena ere, dagozkien kontzeptuak eta zenbatekoak zehatz-mehatz azalduz.
15. Bere lanbidean jardutearen ondorioz bezeroen inguruan ezagutu dituen egitate, dokumentu eta egoeren gaineko sekretu profesionala gordetzea. Sekretu hori orobat aplikatuko zaie prokuradoreak gobernu-batzarrekoa edo kontseilu nagusikoa izateagatik ezagutzen dituen egitateei, eta orobat lankide baten bazkide-laguntzaile izateagatik ezagutzen dituen egitateei.
    Sekretu profesionala alegatzen denean, prokuradoreak bere jarduna arautzen duten legeetara jo dezake legearen arabera duen eskubidea erabat errespeta dadila eskatzeko.
    Prokuradoreak beharrezkotzat jotzen badu abokatuak sinatutako idatziren baten aurrean bere burua erantzukizunetik salbuestea, esaldi hau txerta dezake bere sinaduraren aurrean: «Ordezkaritza-ondorioetarako eta ez bestetarako».
16. Ezarritako epean ordaintzea bere elkargoarekin adostutako ohiko edo ezohiko kuotak, bai eta gainerako nahitaezko kargak ere; haien artean, Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitateak eta Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusiak ezarritakoak.

## CAPÍTULO IV

### De los derechos

**Artículo 15**

1. El Procurador tiene derecho a ser eficazmente amparado en el ejercicio de su profesión ateniéndose para ello los Tribunales a las disposiciones vigentes sobre la materia.

2. Tendrán derecho a la adecuada y justa remuneración de sus servicios profesionales.

**Artículo 16**

1. El Procurador gozará de los honores, preferencias y consideraciones reconocidos por la Ley a la profesión, particularmente en cuanto se refiere al asiento en estrados.

2. En apertura de los Tribunales, tomas de posesión, recepciones y demás actos oficiales solemnes, así como ante cualquier Tribunal o autoridad, los Procuradores vestirán traje negro y corbata negra sin perjuicio del traje que sea distintivo profesional, conforme prevengan las normas en vigor.

3. Los miembros de la Junta de Gobierno usarán la Medalla y Placa correspondientes.

**Artículo 17**

Por los servicios profesionales prestados, el Procurador tendrá derecho a los honorarios que fijen los aranceles vigentes.

De ningún modo se admitirá la fijación del pago de un tanto por ciento o parte alícuota del valor que se obtenga del litigio o de los bienes litigiosos, prohibiéndose el pacto de *cuota litis*.

**Artículo 18**

Si el Procurador prestase servicios profesionales permanentes a una Entidad privada, podrá convenir libremente la retribución de los mismos, pero nunca en cuantía inferior a la que por su rango académico, categoría y clase de trabajo le corresponda, pudiendo ésta ser fijada por el Colegio a que pertenezca.

## IV. KAPITULUA

## Eskubideak

### 15. artikulua

1. Prokuradoreak eskubidea du bere lanbidean jarduteko babes eraginkorra jasotzeko; horretarako, arlo horretan indarrean dauden xedapenak hartuko dituzte aintzat auzitegiek.

2. Prokuradoreek eskubidea izango dute beren zerbitzu profesionalengatik ordainsari egokia eta bidezkoa jasotzeko.

### 16. artikulua

1. Legeak lanbideari aitortzen dizkion ohore, lehentasun eta trataerak izango ditu prokuradoreak, bereziki auzi-geletan esertzeari dagokionez.

2. Auzitegien irekieran, kargu-hartzeetan, harreretan eta gainerako ekitaldi ofizial nagusietan, bai eta edozein auzitegi edo agintariren aurrean, prokuradoreek traje eta gorbata beltzak jantziko dituzte; horrek ez du eragotziko lanbidearen ezaugarri den trajea janztea, indarrean dauden arauek ezartzen dutenaren arabera.

3. Gobernu-batzarreko kideek dagozkien domina eta plaka erabiliko dituzte.

### 17. artikulua

Emandako zerbitzu profesionalen truke, prokuradoreak eskubidea izango du indarrean dauden arantzelek ezarritako ordainsariak jasotzeko.

Inolaz ere ez da onartuko auzitik edo auzi-ondasunetatik lortzen den balioaren ehuneko bat edo zati alikuota bat finkatzea, eta debeku da *cuota litis* hitzarmena.

### 18. artikulua

Prokuradoreak erakunde pribatu bati etengabeko zerbitzu profesionala ematen badio, askatasuna izango du zerbitzu horien lansaria hitzartzeko, baina lansari hori inoiz ez da izango bere maila akademiko, kategoria eta lan-klasearen ondorioz legokiokeena baino apalagoa; dagokion elkargoak ere finkatu ahal izango du.

**Artículo 19**

Por los servicios de carácter extrajudicial que, aun cuando tengan relación con el procedimiento, no correspondan a la actuación profesional estricta en juicio, el Procurador tendrá derecho a los honorarios fijados por disposición general undécima de los Aranceles.

**Artículo 20**

El Procurador colegiado no ejerciente que hubiere de seguir proceso que no esté determinado por el ejercicio de actividades mercantiles e industriales o debiere intervenir en causa en la que fuera parte directa él mismo o sus familiares hasta el cuarto grado de consanguinidad o segundo de afinidad, podrá actuar profesionalmente ejerciendo la representación procesal siempre que el asunto se tramite en el lugar de su residencia y obtenga previamente su habilitación de la Junta de Gobierno del Colegio respectivo, en el que deberá acreditar su condición de Colegiado mediante certificación expedida por la Corporación a la que pertenezca.

En los mismos casos, el Procurador colegiado no ejerciente podrá ostentar conjuntamente la representación y la defensa siempre que concurran los requisitos exigidos por las Leyes al respecto y hubiere sido habilitado previamente al efecto por el Colegio de Abogados correspondiente con arreglo a sus Estatutos.

## CAPÍTULO V

## De las fianzas

**Artículo 21**

El Procurador, con carácter previo al inicio del ejercicio de su función, constituirá, a disposición de la autoridad judicial que corresponda y en garantía de su actuación profesional, fianza de la cuantía correspondiente, según la siguiente escala:

a) Para actuar en Madrid y Barcelona, 75.000 pesetas.
b) En las restantes poblaciones de Audiencia Territorial, 40.000 pesetas.
c) En las poblaciones de Audiencia Provincial y donde exista Juzgado de Primera Instancia desempeñado por Magistrado, 25.000 pesetas.
d) En los demás Juzgados de Primera Instancia, 20.000 pesetas.

**19. artikulua**

Judizioz kanpokoak diren zerbitzuengatik, prozedurarekin lotura izan arren hertsiki epaiketako jarduera profesionalari ez badagozkio, Arantzeletako hamaikagarren xedapen orokorrean finkatutako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du prokuradoreak.

**20. artikulua**

Elkargo bateko kide den eta lanbidean ez diharduen prokuradoreak, merkataritza- eta industria-jarduerei lotuta ez dagoen prozesu bati jarraitu behar badio, edo esku hartu behar badu bera edo bere senide bat, laugarren gradurainoko odolkidetasuna edo bigarren graduraino ko kidetasuna duena, zuzeneko alderdi den kausa batean, profesional gisa jardun ahal izango du ordezkaritza prozesala bere gain hartuz, betiere gaia bera bizi den lekuan izapidetzen bada eta aldez aurretik dagokion elkargoko gobernu-batzarrak gaitzen badu. Horrez gainera, elkargokidea dela egiaztatu beharko du, bera kide den korporazioak emandako ziurtagiriaren bidez.

Kasu horietan, elkargo bateko kide den eta lanbidean ez diharduen prokuradoreak aldi berean egin ahal izango ditu ordezkaritza eta defentsa, betiere legeek horren inguruan ezartzen dituzten eskakizunak betetzen baditu eta aldez aurretik dagokion abokatu-elkargoak bere estatutuen arabera horretarako gaikuntza eman badio.

## V. KAPITULUA

## Fidantzak

**21. artikulua**

Prokuradoreak, bere zeregina betetzen hasi aurretik, dagokion agintaritza judizialaren esku utziko du eskala honen arabera dagokion zenbatekoko fidantza, bere jarduera profesionalaren berme gisa:

a) Madrilen eta Bartzelonan jarduteko, 75.000 pezeta.
b) Lurralde-auzitegien gainerako hirietan, 40.000 pezeta.
c) Probintzia-auzitegia eta magistratua buru duen lehen auzialdiko epaitegia dituzten hirietan, 25.000 pezeta.
d) Lehen auzialdiko gainerako epaitegietan, 20.000 pezeta.

e) En los Juzgados de Distrito que no estén incluidos en los epígrafes anteriores, 7.000 pesetas.

**Artículo 22**

La fianza podrá constituirse en metálico y en valores del Estado o con la garantía del mismo que, conforme a la cotización oficial del día en que se formalice, cubra la cantidad efectiva que corresponda, según la escala anterior.

**Artículo 23**

La fianza responderá a los gastos judiciales a cargo del Procurador devengados en el ejercicio de su profesión, así como de los demás conceptos establecidos por las Leyes.

**Artículo 24**

Si la fianza se redujese como consecuencia de las causas expresadas en el artículo anterior, el Procurador vendrá obligado a complementarla en el plazo máximo de dos meses, y de no verificarlo causará baja en el Colegio, previa formación de expediente.

**Artículo 25**

Al cesar un Procurador se anunciará su baja en el «Boletín Oficial» de la provincia correspondiente a la demarcación judicial donde venía ejerciendo, abriéndose un plazo de seis meses a efectos de reclamaciones.

**Artículo 26**

Transcurrido el plazo de seis meses sin que se haya formulado reclamación, se devolverá la fianza al interesado o a sus herederos. Si por el contrario, existiese alguna reclamación y se estimase justa, se devolverá la cantidad que corresponda. En todo caso, previamente a la resolución de las reclamaciones que se presenten, se solicitará informe del Colegio de Procuradores al que el interesado pertenezca.

e) Aurreko epigrafeetan jasota ez dauden barruti-epaitegietan, 7.000 pezeta.

**22. artikulua**

Fidantza esku-dirutan eta Estatuaren baloreetan ordaindu ahal izango da, edo haren bermearekin, ordaintzen den eguneko kotizazio ofizialaren arabera aurreko eskalari jarraituz dagokion zenbatekoa ordaintzeko nahikoa bada.

**23. artikulua**

Fidantzak erantzungo die prokuradorearen jardunean sortu diren eta haren gain doazen gastu judizialei, eta halaber legeek ezartzen dituzten gainerako kontzeptuetan sortutakoei.

**24. artikulua**

Fidantza murrizten bada aurreko artikuluetan azaldutako kausengatik, prokuradorea behartuta egongo da gehienez ere bi hilabetean fidantza osatzeko. Ez badu egiaztatzen hori egin duela, elkargoan baja emango zaio, espedientea ireki ondoren.

**25. artikulua**

Prokuradore batek jarduna uzten duenean, bajaren berri emango da jardun duen mugape judizialari dagokion probintziako aldizkari ofizialean, eta sei hilabeteko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

**26. artikulua**

Sei hilabeteko epea amaitutakoan erreklamaziorik jarri ez bada, fidantza interesatuari edo haren oinordekoei itzuliko zaie. Aldiz, erreklamazioren bat badago eta bidezkotzat jotzen bada, dagokion zenbatekoa itzuliko da. Nolanahi ere, aurkezten diren erreklamazioak ebatzi aurretik, txostena eskatuko zaio interesduna kide den prokuradoreen elkargoari.

## CAPÍTULO VI

**De las responsabilidades**

### Sección 1.ª

*De la responsabilidad civil y penal*

**Artículo 27**

La responsabilidad civil y penal de los Procuradores por razón del ejercicio de su función se exigirá con arreglo a las Leyes.

### Sección 2.ª

*De la responsabilidad disciplinaria*

**Artículo 28**

Con independencia de la responsabilidad civil y penal, los Procuradores, además son responsables por el incumplimiento de sus deberes profesionales y corporativos, y serán corregidos en la forma que se determina en este Estatuto.

**Artículo 29**

La responsabilidad disciplinaria de los Procuradores será declarada e impuesta por los órganos judiciales y corporativos según corresponda, de conformidad con lo establecido en las Leyes y en este Estatuto, y en los particulares de cada Colegio, respectivamente.

## CAPÍTULO VII

**De las ausencias, sustituciones y ceses en el ejercicio de la profesión**

**Artículo 30**

El Procurador está obligado a residir en el partido o demarcación territorial del Tribunal ante el que ejerza la profesión, no pudiendo ausentarse sin autorización del Decano del Colegio, salvo que la ausencia fuese por tiempo no superior a quince días, en cuyo caso bastaría la comunicación previa al Decano del Colegio con determinación del Procurador o Procuradores que le sustituyan durante la ausencia, debiendo constar la conformidad al respecto de dichos sustitutos.

## VI. KAPITULUA

**Erantzukizunak**

### 1. ATALA

*Erantzukizun zibila eta penala*

**27. artikulua**

Prokuradoreek beren lanbidean jarduteagatik duten erantzukizun zibila eta penala legeek ezarritakoaren arabera eskatuko da.

### 2. ATALA

*Diziplina-erantzukizuna*

**28. artikulua**

Erantzukizun zibil eta penalaz gain, prokuradoreek beren eginbehar profesionalak eta korporatiboak ez betetzearen ondoriozko erantzukizuna ere badute, eta Estatutu honetan zehazten diren zuzenketak aplikatuko zaizkie.

**29. artikulua**

Prokuradoreen diziplina-erantzukizuna dagokien organo judizial eta korporatiboek deklaratu eta ezarriko dute, legeetan eta Estatutu honetan nahiz elkargo bakoitzaren estatutu partikularretan ezarritakoari jarraikiz.

## VII. KAPITULUA

**Lanbidearen jarduneko absentziak, ordezkapenak eta kargugabetzeak**

**30. artikulua**

Prokuradoreak bere lanbidean jarduten duen auzitegiaren barrutian edo lurralde-mugapean bizi behar du nahitaez, eta ezin da elkargoko dekanoaren baimenik gabe kanpora joan, salbu eta hamabost egun baino gehiagorako ez bada; halakoetan, nahikoa da elkargoko dekanoari aldez aurretik jakinaraztea eta kanpoan den bitartean ordezkatuko duten prokuradorea edo prokuradoreak zehaztea, idatziz jasorik ordezko horiek ados daudela.

Cuando la ausencia fuese superior a quince días, será necesario que se solicite autorización al Decano, quien tramitará la petición y aceptación de los sustitutos, que se acompañará a la misma y, una vez concedida, lo comunicará a la autoridad judicial correspondiente.

**Artículo 31**

La autorización para ausentarse del lugar de residencia no podrá exceder de seis meses, pudiendo prorrogarse por otros seis meses en casos justificados.

**Artículo 32**

Concluida la licencia y, en su caso, su prórroga, el Procurador deberá reintegrarse a su residencia, comunicándolo seguidamente al Decano del Colegio, y por éste a las autoridades judiciales, entendiéndose en otro caso que abandona el ejercicio de la profesión. En tal supuesto, y previo expediente en el que el interesado será oído, la Junta de Gobierno comunicará al mismo y a la autoridad judicial el cese en dicho ejercicio, no pudiendo volver a la profesión de Procurador en un plazo de tres años.

Contra este acuerdo podrá interponer el interesado recurso de alzada con sujeción al régimen establecido en la Ley de Procedimiento Administrativo.

**Artículo 33**

Cuando concurra justa causa que imposibilite al Procurador para asistir a la práctica de diligencias, actuaciones judiciales, firma de escritos y en general, para realizar cualquier acto propio de su función en los asuntos en que aparezca personado, podrá ser sustituido por otro Procurador del mismo Colegio u Oficial habilitado que reúna las condiciones establecidas por la normativa vigente, sin más requisitos que la aceptación del sustituto, manifestada en la asistencia a las diligencias y actuaciones, en la firma del escrito o en la formalización del acto profesional de que se trate.

**Artículo 34**

En el supuesto de enfermedad repentina sin previa designación de sustituto, el Decano del Colegio tan pronto como tenga conocimiento del hecho

Prokuradoreak hamabost egunetik gora eman behar baditu kanpoan, beharrezkoa izango da dekanoari baimena eskatzea; hark izapidetuko ditu bai eskaera eta bai ordezkoen onarpena, zeina eskaerarekin batera aurkeztu beharko baita, eta behin baimena emandakoan, dagokion agintaritza judizialari jakinaraziko baitio.

**31. artikulua**

Bizileku duen herritik alde egiteko baimena ezingo da izan sei hilabetetik gorakoa; hala ere, justifika daitezkeen kasuetan, beste sei hilabetez luza daiteke.

**32. artikulua**

Baimena eta, hala badagokio, luzapena bukatutakoan, prokuradoreak bere bizilekura itzuli beharko du, eta berehala jakinarazi beharko dio elkargoko dekanoari, hark agintaritza judizialei jakinaraz diezaien; hala egin ezean, lanbideko jarduna bertan behera uzten duela ulertuko da. Kasu horretan, interesdunari entzuteko aukera emango duen espedientea zabaldu ondoren, gobernu-batzarrak interesdunari eta agintaritza judizialari jakinaraziko die lanbide horretako jarduna bertan behera geratu dela; ondorioz, interesduna ezingo da prokuradorearen lanbidera itzuli hiru urteko epean.

Erabaki horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango du interesdunak, Administrazio Prozeduraren Legean ezarritako araubidearekin bat etorriz.

**33. artikulua**

Arrazoi justifikaturen bat dela medio prokuradorea ezin bada bertaratu eginbideak eta jarduera judizialak egin eta idatziak sinatu behar direnean eta, oro har, ezin badu egin pertsonatu den gaietan bere zereginari dagokion edozein egintza, elkargo bereko beste prokuradore batek edo gaitutako prokuradore ofizial batek ordeztu ahal izango du, baldin eta ordezkoak betetzen baditu indarrean den araudiak ezarritako baldintzak. Horretarako, ordezkoak bere onarpena agertzea izango da eskakizun bakarra, eta eginbide eta jardueretan bertaratuz, idatzia sinatuz edo dagokion egintza profesionala formalizatuz gauzatuko da onarpen hori.

**34. artikulua**

Prokuradorea bat-batean eta ordezkorik izendatu gabe gaixotzen bada, elkargoko dekanoak, horren berri izan bezain laster, elkargo horretako pro-

designará de entre los Procuradores del mismo Colegio a aquel o aquellos que interinamente sustituyan al enfermo, comunicando dicha designación a los Tribunales o Juzgados correspondientes.

En caso de fallecimiento del Colegiado y a petición de su familia, el Decano igualmente hará el nombramiento de quienes se encarguen de la liquidación de su despacho.

**Artículo 35**

El Procurador cesará en el ejercicio de la profesión:

1. A petición propia formulada ante la Junta de Gobierno del Colegio respectivo.
2. Por jubilación o imposibilidad física acreditada debidamente en expediente en el que será oído el interesado.
3. Por haber causado baja en el Colegio como consecuencia de sanción impuesta en expediente disciplinario.
4. Por haber sido condenado en causa criminal a la pena de inhabilitación absoluta o especial o de suspensión del ejercicio de su profesión, mientras no obtuviese su rehabilitación.

**Artículo 36**

El cese del Procurador en la representación se regirá por las Leyes sustantivas y procesales.

## CAPÍTULO VIII

## De la colaboración profesional

**Artículo 37**

Los Procuradores en ejercicio que pertenezcan a un mismo Colegio podrán asociarse para el ejercicio de la profesión en la forma y condiciones que tengan por conveniente, dando cuenta de ello por escrito al Colegio.

La asociación para fines profesionales se hará pública mediante la estampación en los papeles de cartas, comunicaciones profesionales, letreros o placas, etc., de los nombres, apellidos y profesión de los mismos.

kuradoreetako bat edo batzuk izendatuko ditu gaixoa behin-behinekoz ordeztu dezaten, eta dagokien auzitegi edo epaitegiei jakinaraziko die izendapen hori.

Elkargokidea hiltzen bada eta haren familiak hala eskatzen badu, elkargokidearen bulegoa likidatzeaz arduratuko direnak ere izendatuko ditu dekanoak.

**35. artikulua**

Prokuradoreak utzi egingo du lanbide horretako jarduna:

1. Norberaren eskariz, dagokion elkargoko gobernu-batzarrari eskatuta.

2. Erretiroa hartzeagatik edo ezintasun fisikoarengatik; ezintasun fisikoa behar bezala egiaztatu beharko da espedientean, eta interesdunari entzungo zaio.
3. Elkargoan baja eman izateagatik, diziplina-espedientean ezarritako zehapen baten ondorioz.
4. Kausa kriminal batean erabateko desgaikuntza, desgaikuntza berezia edo bere lanbidean jarduteko geldiera ezarri izatea zigor gisa, harik eta birgaikuntza lortu arte.

**36. artikulua**

Prokuradoreak ordezkaritza uzteko, lege substantiboek eta prozesalek ezarritakoa beteko da.

## VIII. KAPITULUA

### Profesionalen arteko lankidetza

**37. artikulua**

Elkargo berekoak diren jarduneko prokuradoreak elkartu egin daitezke lanbidea egoki deritzoten modu eta baldintzetan gauzatzeko, eta idatziz eman beharko diote horren berri elkargoari.

Helburu profesionaletarako elkartzea publiko egingo da, elkartutako profesionalen izenak, abizenak eta lanbideak gutun-paperetan, komunikazio profesionaletan, idazkun edo plaketan eta abar agerraraziz.

En ningún caso podrán ostentar los Procuradores asociados la representación de quienes en el mismo proceso asuman posiciones contrapuestas de partes litigantes.

A tal efecto se presumirá como asociados aquellos Procuradores que ejerzan en el mismo despacho.

# TÍTULO III
# DE LOS COLEGIOS DE PROCURADORES

## CAPÍTULO I

### Artículo 38

Los Colegios de Procuradores, que conservan el tradicional tratamiento de Ilustres, son Corporaciones de Derecho Público de carácter profesional, amparados por la Ley y reconocidos por el Estado, que gozan de personalidad jurídica y están constituidos por quienes reuniendo los requisitos exigidos para ejercer la profesión de Procurador, hayan sido admitidos a formar parte de los mismos.

En consecuencia, pueden adquirir, enajenar y administrar toda clase de bienes y ejercitar ante los Tribunales de cualquiera jurisdicción y grado, las acciones que en su propio interés juzguen convenientes.

Para los actos de adquisición y enajenación de bienes inmuebles, así como para los de disposición y enajenación de derechos y para los de constitución, modificación o extinción de derechos reales sobre bienes muebles o inmuebles, se requerirá acuerdo de la Junta general.

Además, y en el ámbito territorial respectivo, tendrán las funciones determinadas en la Ley y disposiciones en vigor.

### Artículo 39

Son fines del Colegio: Mantener el decoro, la fraternidad y disciplina de sus Colegiados; velar por los intereses profesionales de todos sus miembros, así como por el prestigio de la profesión y porque la Procuraduría se mantenga en el más alto nivel moral, a cuyo efecto el Colegio asumirá el patrocinio y representación de los intereses generales de los Colegiados ante las autoridades y Or-

Prokuradore elkartuek inolaz ere ezingo dute beren gain hartu prozesu berean alderdi auzilarien posizio kontrajarriak dituztenen ordezkaritza.

Ondorio horietarako, elkartutzat joko dira bulego berean diharduten prokuradoreak.

## III. TITULUA
## PROKURADORE-ELKARGOAK

### I. KAPITULUA

**38. artikulua**

Prokuradore-elkargoak, oraindik prestuaren tradiziozko trataera gordetzen dutela, zuzenbide publikoko korporazio profesionalak dira, legeak babestuak eta Estatuak aintzatetsiak, nortasun juridikoa dutenak eta prokuradoretzan jarduteko eskakizunak beterik elkargoko kide izateko onartuak diren pertsonek osatuak.

Ondorioz, era guztietako ondasunak eskuratu, besterendu eta administratu ditzakete, eta edozein jurisdikzio eta gradutako auzitegietan gauzatu ditzakete beren aburuz egokitzat jotzen dituzten akzioak.

Batzar Nagusiaren erabakia beharko da ondasun higiezinak eskuratu eta besterentzeko, eskubideak bereganatzeko eta besterentzeko eta ondasun higiezin nahiz higigarrien gaineko eskubide errealak eratu, aldatu edo azkentzeko egintzak gauzatzeko.

Era berean, indarrean dauden lege eta xedapenek ezarritako zereginak ere beteko dituzte dagokion lurralde-esparruan.

**39. artikulua**

Hauek dira elkargoaren xedeak: elkargokideen izen ona, senidetasuna eta diziplina gordetzea; elkargokide guztien interes profesionalak, lanbidearen ospea eta prokuradoretzak maila moral gorenari euts diezaiola zaintzea, eta, horretarako, elkargoak bere gain hartuko du agintarien eta erakunde publikoen aurrean elkargokideen interes orokorrak babestu eta ordezkatzeko eginkizuna,

ganismos públicos, defendiendo sus derechos y prestigio si fuesen objeto de vejación o desconocimiento; determinar y distribuir equitativamente las cargas que debe soportar la Corporación y las retribuciones que procedan y no estén reguladas expresamente; repartir los pleitos y causas de litigantes pobres o de quienes, sin serlo, soliciten que se les nombre Procurador de oficio; perseguir el intrusismo y prestar la colaboración que se solicite de los Poderes Públicos en la previa información de los proyectos legislativos correspondientes a la ordenación de la Procuraduría, participando en la elaboración de cuantas normas legales o reglamentarias puedan afectar a la profesión y a su ejercicio.

**Artículo 40**

Obligatoriamente existirá un Colegio en cada capital de provincia, que extenderá su actuación a todo el territorio de ésta.

No obstante lo anterior, en aquellas provincias donde existan dos o más Colegios, éstos conservarán el ámbito territorial que actualmente tienen o se les asigne en lo sucesivo.

Sus dependencias estarán instaladas, siempre que fuese posible, en los Palacios de Justicia o edificios de los Juzgados, sin perjuicio de la facultad de cada Colegio para acordar la instalación de los mismos en otra sede.

## CAPÍTULO II

## De la organización y gobierno de todos los Colegios

**Artículo 41**

Los Órganos de los Colegios de Procuradores son:

a) La Junta general, integrada por todos los Colegiados pertenecientes al Colegio respectivo, y,
b) La Junta de Gobierno correspondiente a cada Colegio.

**Artículo 42**

La Junta de Gobierno de cada Colegio estará compuesta, al menos, por los siguientes miembros:

a) Un Decano-Presidente y un Vicedecano.
b) Un Secretario y un Vicesecretario.

haien eskubideak eta izen ona babestuz, iseka edo ezjakintasuna pairatzen dutenean; korporazioak jasan behar dituen kargak eta espresuki arautu gabeko ordainsariak zehaztu eta bidezkotasunez banatzea; auzilari behartsuen edo, behartsu izan ez arren, ofiziozko prokuradorea izendatzeko eskatzen duten auzilarien auzigaiak eta auziak banatzea; intrusismoaren aurka borroka egitea eta botere publikoei eskatzen duten laguntza ematea prokuradoretza arautzeari loturiko lege-proiektuen aldez aurretiko informazioan, eta lanbideari eta hartako jardunari eragin diezaieketen lege-eta erregelamendu-arauen eraketan parte hartzea.

**40. artikulua**

Elkargo bat egongo da nahitaez probintzia-hiriburu bakoitzean, eta haren jarduna probintzia osora hedatuko du.

Aurrekoa gorabehera, bi elkargo edo gehiago dauden probintzietan, gaur egun duten edo aurrerantzean esleitzen zaien lurralde-esparrua izaten jarraituko dute.

Haien gelak justizia-jauregietan edo epaitegien eraikinetan egongo dira ahal den guztietan, nahiz eta elkargo bakoitzak ahalmena izango duen gela horiek beste egoitzaren batean kokatzea adosteko.

## II. KAPITULUA

## Elkargo guztien antolaketa eta gobernua

**41. artikulua**

Prokuradore-elkargoen organoak hauek dira:

a) Batzar nagusia, elkarte bakoitzeko elkargokide guztiek osatzen dutena, eta
b) Elkargo bakoitzaren gobernu-batzarra.

**42. artikulua**

Elkargo bakoitzaren gobernu-batzarrak kide hauek izango ditu, gutxienez:

a) Dekano-presidentea eta dekanordea.
b) Idazkaria eta idazkariordea.

c) Un Tesorero.
d) Los Vocales que determinen los Estatutos de cada Colegio.

**Artículo 43**

Todos los cargos son obligatorios, honoríficos y gratuitos, siendo la duración de cada mandato de cuatro años.

**Artículo 44**

Será requisito para poder ser elegido miembro de la Junta de Gobierno el ejercicio ininterrumpido de la profesión en el territorio del Colegio durante un tiempo de cinco años como mínimo, estando incapacitado para el desempeño de cargos de la Junta de Gobierno o en el Consejo General el Colegiado que hubiera sido sancionado por vía de corrección disciplinaria mientras no hubiera obtenido su rehabilitación.

**Artículo 45**

La Junta de Gobierno será elegida de entre los Colegiados en quienes concurran las condiciones previstas en el artículo anterior. Para los cargos de Decano, Secretario, Vicesecretario y Tesorero, sólo podrán ser elegidos los Colegiados ejercientes en la sede del Colegio.

La elección de la Junta de Gobierno se hará por la Junta General Ordinaria, o la extraordinaria cuando proceda, en la forma que determinen los Estatutos de cada Colegio.

**Artículo 46**

La Junta de Gobierno se reunirá, cuando menos, una vez al mes, previa convocatoria por el Decano cursada con la antelación necesaria para que se halle en poder de sus componentes cuarenta y ocho horas antes de la fecha fijada para la sesión, salvo que razones de urgencia justifiquen la convocatoria en cualquier tiempo que las circunstancias exijan.

En la convocatoria habrá de expresarse el lugar, día y hora en que habrá de celebrarse la sesión y el Orden del Día.

Serán válidas las sesiones de la Junta de Gobierno a las que, aun sin haber sido convocada en forma, asista la totalidad de sus miembros.

c) Diruzaina.
d) Elkargo bakoitzeko estatutuek zehazten duten adina kide.

**43. artikulua**

Kargu guztiak nahitaezkoak, ohorezkoak eta doakoak dira, eta kargualdi bakoitzak lau urte iraungo du.

**44. artikulua**

Gobernu-batzarreko kide izendatua izateko, nahitaezkoa da elkargoari dagokion lurraldean gutxienez 5 urtez jarraian lanbidean jardun izatea. Diziplina-zuzenketa bidez zehatu diren elkargokideek ezingo dute gobernu-batzarrean edo kontseilu nagusian kargurik bete, harik eta birgaikuntza lortzen duten arte.

**45. artikulua**

Gobernu-batzarra aurreko artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten elkargokideen artetik aukeratuko da. Elkargoaren egoitzan diharduten elkargokideak bakarrik hauta daitezke dekano, idazkari, idazkariorde eta diruzain karguak betetzeko.

Ohiko batzar nagusiak hautatuko du gobernu-batzarra, edo, hala dagokionean, ezohiko batzar nagusiak, elkargo bakoitzaren estatutuek ezartzen dutenari jarraituz.

**46. artikulua**

Gobernu-batzarra hilean behin elkartuko da gutxienez, dekanoak deialdia egin ondoren; deialdi hori aurretiaz behar bezain garaiz egin behar da, batzarkideek saiorako jarritako eguna baino berrogeita zortzi ordu lehenago jaso dezaten, salbu eta larrialdiko arrazoiak direla-eta egoerak eskatzen duen edozein eperekin egin behar denean.

Deialdian, adierazi behar da saioa zer leku, egun eta ordutan egingo den, bai eta eguneko gai-zerrenda ere.

Gobernu-batzarraren saioak baliozkoak izan daitezen, nahitaezkoa izango da kide guztiek parte hartzea, baita formaz deitu ez badira ere.

**Artículo 47**

Para que la Junta de Gobierno pueda deliberar y tomar acuerdos en segunda convocatoria, será suficiente que concurran a la reunión cuatro de sus componentes, entre ellos el Decano o quien reglamentariamente le sustituya.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos, y, en caso de empate, decidirá el voto del Presidente.

**Artículo 48**

Corresponde a la Junta de Gobierno:

1. Resolver las solicitudes de incorporación al Colegio.
2. Velar por que todos los Colegiados cumplan puntualmente los presentes Estatutos, los acuerdos que por virtud de los mismos se tomen en las Juntas, las disposiciones del Gobierno que le sean concernientes, las que dictaren los Tribunales y autoridades y las del Consejo General.
3. Vigilar con el mayor celo que los Colegiados desempeñen su cargo con el decoro, diligencia, probidad y demás circunstancias que hayan de contribuir al buen nombre de la Corporación.
4. Velar por el decoro profesional y por que sean guardadas a todos y cada uno de los Colegiados las consideraciones que les sean debidas, defendiéndoles por justa causa si fueren molestados o perseguidos con motivo del ejercicio de la profesión.
5. Resolver, según corresponda, las reclamaciones que se hicieran al Colegio respecto de algunos de sus Colegiados.
6. Nombrar entre los Colegiados, las Comisiones que sean necesarias para el buen régimen y desempeño de los asuntos que al Colegio convengan.
7. Disponer la cobranza de las cantidades que correspondan al Colegio por cualquier concepto, las cuotas con que deben contribuir los Colegiados, la exacción de las multas que se les impongan, el importe de las pólizas u otros ingresos y el pago de los gastos de la Corporación.
8. Disponer lo más conveniente a los intereses del Colegio, respecto a la situación o inversión de sus fondos, a propuesta del Tesorero o Censor, dando cuenta de lo acordado a la Junta general.
9. Redactar las bases por las que han de regirse los concursos que se convoquen para cubrir las plazas de empleados del Colegio, que queden vacantes o las que, en lo sucesivo, se creen, y el nombramiento de los mismos.

**47. artikulua**

Gobernu-batzarrak bigarren deialdian eztabaidatu eta erabakiak hartu ahal izan ditzan, nahikoa izango da bileran lau kidek parte hartzea, haietako bat dekanoa edo araudiaren arabera hura ordeztuko duena bada.

Erabakiak boto-gehiengoaren bidez hartuko dira, eta, berdinketa gertatzen bada, presidenteak erabakiko du botoa.

**48. artikulua**

Gobernu-batzarrari dagokio:

1. Elkargoan sartzeko eskaerak ebaztea.
2. Begiratzea elkargokide guztiek zorrotz bete ditzatela: Estatutu hauek, berauen bidez batzarretan hartzen diren erabakiak, elkargoari eragiten dioten Gobernuaren xedapenak, auzitegi eta agintariek ezartzen dituztenak eta kontseilu nagusiarenak.
3. Ardura handiz begiratzea elkargokideek beren kargua betetzean korporazioaren izen ona gordetzen lagunduko duten egokitasuna, zuzentasuna, zintzotasuna eta gainerako gorabeherak zainduz jardungo dutela.
4. Lanbidearen ospea zaintzea eta elkargokide guztiei zor zaien begirunea gordetzen zaiela begiratzea, eta haiek bidezko arrazoiengatik defendatzea lanbidean jarduteagatik eragozpenik edo jazarpenik pairatzen badute.
5. Elkargokideren bati buruz elkargoari egindako erreklamazioak ebaztea, dagokionaren arabera.
6. Beharrezkoak diren batzordeak izendatzea, elkargokideen artetik, elkargoari komeni zaizkion gaiak kudeatzeko eta gauzatzeko.

7. Kobratzeko bideratzea elkargoak edozein kontzepturengatik kobratu beharreko zenbatekoak, elkargokideek ordaindu beharreko kuotak, jartzen dizkieten isunak, polizen edo bestelako diru-sarreren zenbatekoak eta korporazioaren gastuen ordainketa.
8. Elkargoaren interesetarako komenigarriena dena erabakitzea haren funtsen egoerari edo inbertsioari dagokionez, diruzainak edo aztertzaileak hala proposatuta; hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio batzar nagusiari.
9. Elkargoko langileen lanpostuak hutsik geratzen direnean edo berriak sortzen direnean, lanpostu horiek betetzeko deitzen diren lehiaketen oinarriak idaztea eta lanpostu horietarako izendapenak egitea.

10. Acordar la convocatoria de las Juntas generales ordinaria o extraordinaria, y ésta por sí o a instancia de los Colegiados en la forma y términos del artículo 55.
11. Proponer a la Junta general, para su resolución, todos los asuntos que sean de interés y conveniencia del Colegio y la profesión.
12. Resolver sobre todas las exposiciones, informes y demás documentos que hayan sido solicitados al Colegio.
13. Sancionar a los Procuradores del Colegio que incurran en cualesquiera de las faltas que se establecen en este Estatuto General y en los Estatutos de cada Colegio, instruyendo al efecto el oportuno expediente.
14. Llamar para mayor ilustración a cualesquiera de los Colegiados, sin que éstos puedan excusarse.
15. Promover, cerca del Gobierno, de las autoridades o del Consejo General, cuanto sea conveniente a la Corporación.
16. Guardar con las autoridades, Corporaciones y Entidades oficiales la comunicación y relaciones que a cada Ilustre Colegio corresponda.
17. Ejecutar los acuerdos adoptados por las Juntas generales.

**Artículo 49**

Corresponde al Decano presidir el Colegio y su Junta de Gobierno y ostentar la representación de aquél; ejercer funciones de vigilancia y corrección respecto a los Colegiados; autorizar con su firma los documentos de pago, cargo y balances; suscribir los informes y comunicaciones que hayan de cursarse y asumir la dirección y control de los servicios del Colegio.

Le incumbe, especialmente, fomentar y mantener entre todos los Colegiados relaciones de hermandad y compañerismo, la tutela de los derechos del Colegio y de sus miembros y, en general, cuantas facultades determinen los Estatutos de los Colegios.

**Artículo 50**

El Secretario es el encargado de las oficinas administrativas del Colegio, competiéndole recibir y tramitar los escritos, oficios y documentos, librar certificaciones, llevar el turno de oficio, custodiar el libro de Actas, los libros de Registro, los expedientes personales de los Colegiados y, en general, cuanta documentación sea precisa para el normal desenvolvimiento de aquéllas, teniendo a su cargo el archivo y sello del Colegio.

10. Ohiko edo ezohiko batzar nagusien deialdia adostea, bere kabuz edo elkargokideek eskatuta, 55. artikuluan ezartzen den moduan eta baldintzetan.
11. Batzar nagusiari proposatzea, ebatz ditzan, elkargoari eta lanbideari interesatzen eta komeni zaizkion gai guztiak.
12. Elkargoari eskatzen zaizkion azalpen, txosten eta gainerako dokumentu guztien gaineko ebazpenak ematea.
13. Estatutu Orokor honetan eta elkargo bakoitzaren estatutuetan ezartzen diren faltetako edozein egiten duten prokuradore elkargokideei zehapenak ezartzea eta, horretarako, dagokion espedientea instruitzea.
14. Azalpen gehiago entzuteko edozein elkargokideri deitzea; haiek ezingo diote uko egin.
15. Gobernutik, agintariengandik edo Kontseilu Nagusitik gertu sustatzea korporazioari komeni zaion guztia.
16. Agintari, korporazio eta erakunde ofizialekin elkargo prestu bakoitzari dagozkion komunikazioa eta harremanak izatea.
17. Batzar nagusiek hartutako erabakiak betearaztea.

**49. artikulua**

Dekanoari dagokio elkargoaren eta haren gobernu-batzarraren presidente izatea eta hura ordezkatzea; elkargokideak zaindu eta zuzentzeko zereginak betetzea; bere sinaduraz ordainagiriak, zordunketa-agiriak eta balantzeak baimentzea; izapidetu beharreko txostenak eta komunikazioak sinatzea; eta, azkenik, elkargoaren zerbitzuen zuzendaritza eta kontrola bere gain hartzea.

Bereziki, berari dagokio elkargokide guztien artean senidetasun eta kidetasunezko harremanak bultzatu eta gordetzea, elkargoaren eta elkargokideen eskubideak babestea, eta, oro har, elkargoetako estatutuek ezartzen dituzten ahalmen guztiak.

**50. artikulua**

Idazkaria da elkargoko bulego administratiboen arduraduna, eta berari dagokio idatziak, ofizioak eta dokumentuak jaso eta izapidetzea; ziurtagiriak egitea; ofiziozko txanda eramatea; akta-liburua, erregistro-liburuak, elkargokideen espediente pertsonalak, eta, oro har, bulegoen funtzionamendu egokirako behar den dokumentazio guztia zaintzea; eta, azkenik, artxiboaz eta elkargoaren zigiluaz arduratzea.

**Artículo 51**

El Secretario de los Colegios con sede en Audiencias Territoriales llevará un libro titulado «Formación Profesional» en el que anotará la solicitud de inscripción que se dirija al Decano del Colegio de Procuradores de la Audiencia Territorial correspondiente y demás datos.

**Artículo 52**

El Tesorero recaudará y custodiará los fondos del Colegio, verificará los pagos que hayan sido dispuestos y autorizados reglamentariamente, llevará los libros de contabilidad que sean necesarios, colaborará con el Censor, cuando lo hubiera, en la formación de los presupuestos anuales de ingresos y gastos, así como en la formación del balance anual del ejercicio económico y en la propuesta de la Junta de Gobierno sobre la situación e inversión que considere más segura y rentable para los fondos propiedad del Colegio.

**Artículo 53**

Los Vocales, además de su actuación como tales en la Junta de Gobierno, desempeñarán las funciones que se les asignen en los Estatutos de los Colegios.

**Artículo 54**

La Junta general es el supremo órgano de gobierno del Colegio. Podrá ser ordinaria o extraordinaria. La Junta general ordinaria se celebrará una vez al año para tratar, además de cualesquiera otros asuntos, de los siguientes:

1. Reseña e informe que hará el Decano de las cuestiones importantes acaecidas durante el año en el Colegio, en relación con el mismo y con la profesión.
2. Lectura, discusión y votación del balance o cuenta general de ingresos y gastos del año anterior.
3. Propuesta de presupuesto de ingresos y gastos para el año corriente.
4. Ruegos y preguntas.
5. Elección de los cargos vacantes.

La Junta general extraordinaria se celebrará en cualquier tiempo y sin limitación de número, para tratar del asunto o asuntos que la motiven a iniciativa de la Junta de Gobierno o a instancia del número de Colegiados que determinen sus Estatutos.

## 51. artikulua

Egoitza lurralde-auzitegietan duten elkargoetako idazkariak «Lanbide Heziketa» izeneko liburu bat eramango du, eta han idatziko ditu dagokion lurralde-auzitegiko prokuradore-elkargoko dekanoari bidaltzen zaizkion inskripzio-eskaerak eta gainerako datuak.

## 52. artikulua

Diruzainak elkargoaren funtsak bildu eta zainduko ditu; araudiaren arabera agindu eta baimendu diren ordainketak egiaztatuko ditu; beharrezkoak diren kontabilitate-liburuak eramango ditu; eta, horrez gainera, azterlariarekin lankidetzan jardungo du —halakorik badago—, sarreren eta gastuen urteko aurrekontuak eratzeko, ekitaldi ekonomikoaren urteko balantzea eratzeko, eta elkargoarenak diren funtsen egoerari eta haientzat seguruentzat eta errentagarrientzat jotzen duen inbertsioari buruz gobernu-batzarrak egiten duen proposamena prestatzen.

## 53. artikulua

Gobernu-batzarreko kideek, zeregin horretaz gainera, elkargoetako estatutuetan esleitzen zaizkien zereginak ere beteko dituzte.

## 54. artikulua

Batzar nagusia da elkargoaren organo gorena. Ohikoa edo ezohikoa izan daiteke. Ohiko batzar nagusia urtean behin egingo da gai hauek aztertzeko, beste batzuez gain:

1. Urtean zehar elkargoaren eta lanbidearen inguruan izandako gertaerarik garrantzitsuenen gaineko aipamena eta txostena, dekanoak eginak.
2. Aurreko urteko balantzearen edo sarrera eta gastuen kontu orokorraren inguruko irakurketa, eztabaida eta bozketa.
3. Den urterako diru-sarreren eta gastuen aurrekontu-proposamena.
4. Galde-eskariak.
5. Hutsik dauden karguak hautatzea.

Ezohiko batzar nagusia edozein garaitan eta kopuru-mugarik gabe egingo da, hura egiteko arrazoi den gaia edo gaiak aztertzeko, gobernu-batzarrak eskatuta edo estatutuetan ezartzen den elkargokide-kopuruak eskatuta.

**Artículo 55**

Las convocatorias de las Juntas generales se harán por acuerdo de la Junta de Gobierno y se llevarán a efecto por medio de comunicación escrita dirigida a cada Colegiado, en la que se exprese el lugar, día y hora en que habrá de celebrarse la sesión, en primera o segunda convocatoria, y el Orden del Día. Dicha comunicación habrá de estar en poder de los Colegiados con cinco días de antelación a la fecha en que haya de celebrarse la Junta.

No podrá iniciarse la sesión en primera convocatoria si no se hallan presentes la mitad más uno de los Colegiados. En segunda convocatoria se celebrará con los que concurran, cualesquiera que sea su número.

**Artículo 56**

Los acuerdos se adoptarán por la mayoría que determinen los Estatutos de los Colegios, según los casos, y habrá de determinarse la forma de resolver las votaciones en que se produzcan empates.

## CAPÍTULO III

## De los colegiados

**Artículo 57**

Son Colegiados quienes hayan obtenido la incorporación al Colegio correspondiente para ejercer la profesión de Procurador.

Por excepción, aquellos Procuradores que, habiendo ejercido incorporados a un Colegio, se diesen de baja en la profesión, podrán continuar incorporados a dicho Colegio como Colegiados no ejercientes.

**Artículo 58**

Los requisitos para obtener la incorporación al Colegio de quienes reúnan las condiciones necesarias para ejercer la profesión, así como los derechos y obligaciones de todo orden que les incumben como Colegiados una vez la obtengan, serán determinados por los Estatutos de cada Corporación de acuerdo con lo dispuesto en el presente Estatuto General.

### 55. artikulua

Batzar nagusien deialdiak gobernu-batzarraren erabakiz egingo dira, eta elkargokide bakoitzari idatziz emango zaio haien berri; jakinarazpen horretan, adieraziko da saioa zer leku, egun eta ordutan egingo den, lehen edo bigarren deialdian egingo den, eta eguneko gai-zerrenda zein izango den. Batzarra egiteko jarritako eguna baino bost egun lehenago jaso beharko dute jakinarazpen hori elkargokideek.

Ezin hasiko da saioa, lehen deialdian, ez badaude elkargokideen erdiak eta bat gehiago. Bigarren deialdian, bertaratu diren kideekin egingo da, edozein dela ere kopurua.

### 56. artikulua

Elkargoetako estatutuek zehazten duten gehiengoarekin hartuko dira erabakiak, kasuaren arabera, eta berdinketak gertatzen direnean nola ebatziko diren zehaztu beharko da.

## III. KAPITULUA

## Elkargokideak

### 57. artikulua

Elkargokide dira prokuradore-lanbidean jarduteko dagokion elkargoan sartzea lortu dutenak.

Salbuespen gisa, elkargo baten barruan jardun ondoren lanbidean baja eman duten prokuradoreek elkargo horretako kide izaten jarraitu ahal izango dute, ez diharduten elkargokide gisa.

### 58. artikulua

Korporazio bakoitzaren estatutuek finkatuko dute lanbidean jarduteko baldintzak betetzen dituztenek zer betekizun duten elkargoan sartzeko, eta hori lortu ondoren zer eskubide eta betebehar, era guztietakoak, izango dituzten elkargokide gisa, Estatutu Orokor honetan xedatutakoaren arabera.

## CAPÍTULO IV

### De los recursos económicos

**Artículo 59**

Los ingresos de los Colegios serán ordinarios y extraordinarios.

Son ingresos ordinarios:

a) Las cuotas de incorporación.
b) Las cuotas periódicas a satisfacer por los Colegiados.
c) El importe de las pólizas o sellos autorizados y, en todo caso, los de aceptación de poder que los Colegiados han de adherir al escrito con que comparezcan en toda clase de asuntos y en cualesquiera órdenes jurisdiccionales, ya lo verifiquen en virtud de escritura de mandato, apoderamiento, *apud-acta* o designación. En estos dos últimos casos habrán de adherirlo al primer escrito que presente o al pie de la diligencia que se extienda en los autos haciendo constar la aceptación.
d) Las pólizas y sellos que han de adherir a las cartas-órdenes, suplicatorios, exhortos y comisiones rogatorias en general, de cuyo diligenciamiento, se hayan hecho cargo los Colegiados.
e) Los derechos que se perciban de los Colegiados y particulares por la expedición de certificaciones.
f) Los intereses, rentas, y pensiones que produzcan sus bienes y derechos.

Son ingresos extraordinarios:

a) Las subvenciones y donativos procedentes del Estado, Corporaciones Públicas, Entidades privadas y particulares.
b) Los bienes muebles e inmuebles adquiridos por herencia o legado.

c) Los repartimentos o derramas entre los Colegiados que acuerden las Juntas generales, y cualesquiera otros pagos que los Órganos de Gobierno puedan reglamentariamente imponer a los Colegiados, con arreglo a sus propios Estatutos.

## IV. KAPITULUA

## Baliabide ekonomikoak

### 59. artikulua

Elkargoen diru-sarrerak ohikoak eta ezohikoak izango dira.

Ohiko diru-sarrerak dira:

a) Sarrera-kuotak.
b) Elkargokideek ordaindu beharreko aldizkako kuotak.
c) Baimendutako poliza edo zigiluen zenbatekoa eta, hala badagokio, elkargokideek ahalordea onartzeko zigiluena, beti erantsi beharko baitiete elkargokideek era guztietako gaietan eta jurisdikzio-ordena guztietan agertzeko baliatuko duten idatziari, dela mandatu-idatzi baten bitartez, dela *apud acta*, dela izendapen bitartez egiaztatua. Azken bi kasu horietan, aurkezten duten lehen idatziari erantsi beharko diote zigilua, edo auzi-agirietan onarpena adierazteko betetzen duten eginbidearen oinean.
d) Gutun-aginduetan, suplikatorioetan, exhortoetan eta, oro har, erregu-eskaeretan erantsi beharreko polizak eta zigiluak, eginbideak egiteaz elkargokideak arduratu diren kasuetan.
e) Elkargokideengandik eta partikularrengandik ziurtagiriak egitearen truke jasotzen diren eskubideak.
f) Elkargoaren ondasun eta eskubideek sortzen dituzten interesak, errentak eta pentsioak.

Ezohiko diru-sarrerak dira:

a) Estatutik, korporazio publikoetatik, erakunde pribatuetatik eta partikularrengandik jasotako diru-laguntzak eta dohaintzak.
b) Oinordetzan edo legatu bidez eskuratutako ondasun higiezinak edo higigarriak.
c) Batzar nagusiek adosten dituzten elkargokideen arteko banaketak edo derramak, eta gobernu-batzarrek araudiaren arabera elkargokideei ezar diezazkieketen beste ordainketa oro, beren estatutuetan ezarritakoa betez.

## CAPÍTULO V

### Del Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España

**Artículo 60**

El Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España se regirá por las normas correspondientes contenidas en la Ley 2/1974, de 13 de febrero, modificada por la de 26 de diciembre de 1978, y por las reguladoras de su organización, funcionamiento y régimen jurídico, elaboradas según lo dispuesto en ellas.

# TÍTULO IV

# DE LA RESPONSABILIDAD DISCIPLINARIA

## CAPÍTULO I

### De las infracciones

**Artículo 61**

Los Procuradores quedan sujetos a responsabilidad disciplinaria por el incumplimiento de sus deberes profesionales que se exigirá judicial o corporativamente.

Las sanciones o correcciones disciplinarias que se impongan al Procurador, se anotarán en el expediente personal de éste.

**Artículo 62**

La potestad disciplinaria de los Colegios de Procuradores sobre sus miembros, se ejercerá en los siguientes casos:

a) Vulneración de preceptos de este Estatuto o de los contenidos en los Estatutos particulares de los Colegios.
b) Comisión de actos contrarios a la ética y al decoro profesional o de hechos que el concepto público tenga por infamantes y que hagan al inculpado indigno de pertenecer a un Ilustre Colegio de Procuradores, sean o no constitutivos de infracciones de otra índole.

## V. KAPITULUA

## Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusia

### 60. artikulua

1974ko otsailaren 13ko 2/1974 Legeak —zeina 1978ko abenduaren 26koak aldatu baitzuen— jasotzen dituen arauak izango ditu gidatzaile Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusiak, bai eta bere antolamendua, funtzionamendua eta araubide juridikoa arautzen dituztenak ere, horietan xedatutakoaren arabera eratuta baitaude.

# IV. TITULUA

# DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNA

## I. KAPITULUA

## Arau-hausteak

### 61. artikulua

Prokuradoreek diziplina-erantzukizuna izango dute beren lanbideari loturiko eginbeharrak betetzen ez badituzte; erantzukizun hori judizialki nahiz korporazioaren bidez eska daiteke.

Prokuradoreari ezartzen zaizkion zehapenak edo diziplina-zuzenketak haren espediente pertsonalean jasoko dira.

### 62. artikulua

Prokuradore-elkargoek beren elkargokideen gainean duten diziplina-ahala kasu hauetan gauzatuko da:

a) Estatutu honetako edo elkargoen estatutu partikularretako xedapenak ez betetzea.
b) Etikaren eta lanbidearen izen onaren aurkako egintzak edo kontzeptu publikoarentzat iraingarriak diren eta erruztatua prokuradore-elkargo prestu bateko kide izateko ez-duin bihurtzen duten egitateak egitea, bestelako arau-hausteak ere izan edo ez.

**Artículo 63**

Las infracciones consistentes en acciones u omisiones a que se refiere el apartado a) del artículo anterior se clasificarán en leves, graves y muy graves, y las relativas al apartado b), se calificarán siempre de muy graves.

**Artículo 64**

1. Son infracciones o faltas leves:

Las acciones u omisiones en orden al incumplimiento general de los deberes estatutarios, no consideradas específicamente como graves o muy graves.

2. Son infracciones o faltas graves:

a) La reincidencia en falta leve dentro del plazo de cinco años.
b) La expresamente señalada en otros artículos de este Estatuto o de los contenidos en los Estatutos particulares de los Colegios.
c) Dejar de satisfacer, dentro de los plazos señalados, tanto las cuotas ordinarias como extraordinarias acordadas por los Colegios, así como las demás cargas sociales a que vinieran obligados, entre ellas las de la Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España.
d) La deslealtad y competencia ilícita respecto a otros Procuradores.
e) El pacto de *cuota-litis*.

3. Son infracciones muy graves:

a) La reincidencia en falta grave dentro del plazo de cinco años.
b) Las expresamente señaladas en otros artículos de este Estatuto o de los contenidos en los Estatutos particulares de los Colegios.

**Artículo 65**

Las faltas prescribirán:

a) Las leves, a los tres meses.
b) Las graves, al año.
c) Las muy graves, a los dos años.

Los plazos anteriores se computarán en todo caso a partir de la fecha de la comisión de los hechos constitutivos de infracción, interrumpiéndose los mismos por cualquier diligencia o actuación.

**63. artikulua**

Aurreko artikuluaren a) atalak aipatzen dituen egintzek edo omisioek eragindako arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke, eta b) atalean aipaturikoak, berriz, beti oso astuntzat joko dira.

**64. artikulua**

1. Arau-hauste edo falta arinak dira:

Estatutu-eginbeharrak eskuarki ez betetzeari loturiko egintza edo omisioak, astuntzat edo oso astuntzat berariaz jotzen ez direnak.

2. Arau-hauste edo falta astunak dira:

a) Bost urteko epearen barruan falta arin batean berrerortzea.
b) Estatutu honetako edo elkargoen estatutu partikularretako beste artikulu batzuetan espresuki zehazten direnak.
c) Zehaztutako epeen barruan elkargoek adostutako ohiko nahiz ezohiko kuotak ordaintzeari uztea, eta orobat ordaintzera behartuta dauden gainerako karga sozialak ordaintzeari uztea; besteak beste, Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitatearena.
d) Beste prokuradoreekiko desleialtasuna eta lehia ez-zilegia.
e) *Cuota litis* hitzarmena.

3. Arau-hauste oso astunak dira:

a) Bost urteko epearen barruan falta astunean berrerortzea.
b) Estatutu honetako edo elkargoen estatutu partikularretako beste artikulu batzuetan espresuki zehazten direnak.

**65. artikulua**

Faltak epe hauetan preskribatuko dira:

a) Arinak, hiru hilabeteren buruan.
b) Astunak, urtebeteren buruan.
c) Oso astunak, bi urteren buruan.

Aurreko epeak arau-haustea eragin duten egintzak gauzatu ziren egunetik zenbatuko dira beti, eta eten egingo dira edozein eginbide edo jardueraren ondorioz.

## CAPÍTULO II

### De las sanciones

**Artículo 66**

Las sanciones aplicables a las infracciones tipificadas en los artículos anteriores son las siguientes:

1. A las infracciones leves:

a) Apercibimiento verbal.
b) Apercibimiento por escrito.
c) Multa de 500 a 10.000 pesetas.
d) Reprensión privada.

2. A las infracciones graves:

Suspensión de uno a seis meses, debiendo satisfacerse previamente a la reincorporación del interesado cuantas prestaciones, cuotas o cargas tuviere pendientes de pago el mismo.

3. A las infracciones muy graves:

a) Suspensión de seis meses a dos años.
b) Expulsión.

Para la graduación de las sanciones se ponderará en todo caso, las circunstancias objetivas del hecho y las subjetivas de su autor, moderándose o gravándose la responsabilidad de éste según la concurrencia de dichas circunstancias.

## CAPÍTULO III

### Del procedimiento sancionador

**Artículo 67**

La responsabilidad disciplinaria será exigida por la Junta de Gobierno del Colegio correspondiente, previa incoación de expediente, con audiencia del interesado y valoración de las pruebas que se practiquen a instancia del mismo o de oficio por el instructor.

## II. KAPITULUA

## Zehapenak

### 66. artikulua

Aurreko artikuluetan tipifikatutako arau-hausteei zehapen hauek aplika dakizkieke:

1. Arau-hauste arinei:

a) Ahozko ohartarazpena.
b) Idatzizko ohartarazpena.
c) 500 eta 10.000 pezeta arteko isuna.
d) Errieta pribatua.

2. Arau-hauste astunei:

Hilabetetik sei hilabetera bitarteko geldiera, eta ordaintzeke dituen prestazio, kuota edo kargak ordaindu beharko ditu interesdunak elkargora itzuli aurretik.

3. Arau-hauste oso astunei:

a) Sei hilabetetik bi urtera bitarteko geldiera.
b) Kanporatzea.

Zehapenak graduatzeko, egitatearen gorabehera objektiboak eta egilearen gorabehera subjektiboak hartuko dira kontuan, eta gorabehera horien arabera arinduko da edo handituko da egilearen erantzukizuna.

## III. KAPITULUA

## Zehapen-prozedura

### 67. artikulua

Diziplina-erantzukizuna dagokion elkargoko gobernu-batzarrak eskatuko du, aldez aurretik espedientea irekita, eta interesdunari entzun ondoren eta hark eskatuta edo instruktoreak ofizioz eskatuta egiten diren probak balioetsi ondoren.

La Junta designará de entre sus miembros Juez Instructor y Secretario, tramitándose el expediente con sujeción a las normas reguladoras de la Ley de Procedimiento Administrativo.

**Artículo 68**

Las sanciones de suspensión por más de seis meses y de expulsión, se impondrán, en su caso, mediante acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno en votación secreta y por mayoría de las dos terceras partes de sus miembros.

A esta sesión deberán asistir obligatoriamente todos sus componentes, y si bien para la validez de la constitución de la misma y a efectos de quórum no constituirá vicio o defecto la ausencia de alguno o algunos de sus componentes, la inasistencia injustificada será causa para el cese en el cargo.

**Artículo 69**

Cuando el inculpado fuese miembro de la Junta de Gobierno o del Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España será éste el competente para instruir y resolver el preceptivo expediente, cuya tramitación se ajustará al procedimiento señalado en el párrafo segundo del artículo 67, actuando como Secretario el del propio Consejo General y turnándose la designación de Instructor entre sus componentes.

**Artículo 70**

Contra las sanciones impuestas por la Junta de Gobierno de los Colegios, el interesado podrá interponer recurso de alzada ante el Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España, cuyo régimen se ajustará a lo establecido al respecto en la Ley de Procedimiento Administrativo.

Contra las sanciones impuestas por el Consejo General, el interesado podrá interponer recurso de reposición ante el propio Consejo General, conforme a las reglas señaladas en la Ley de Procedimiento Administrativo.

**Artículo 71**

En general, los actos dictados por el Consejo General y la Junta de Gobierno de los Colegios, serán impugnables en la vía corporativa a través, respectivamente, del recurso de reposición previo y del de alzada, procediendo contra la resolución que agote dicha vía el correspondiente recurso jurisdiccional en

Batzarrak bere kideen artetik izendatuko ditu instrukzio-epailea eta idazkaria, eta Administrazio Prozeduraren Legeak ezartzen dituen arauei jarraituz izapidetuko da espedientea.

**68. artikulua**

Sei hilabetetik gorako geldiera-zehapenak eta kanporatze-zehazpenak, hala badagokio, gobernu-batzarrak bozketa sekretuan eta batzarkideen bi herenen gehiengoz erabakita ezarriko dira.

Batzarkide guztiek bertaratu behar dute nahitaez saio horretan, eta, nahiz eta kide bat edo batzuk bertan ez egotea ez den akatsa edo hutsa izango batzarra osatzeko eta quorumaren ondorioetarako, justifikatu gabe huts egiteak kargutik kentzea eragingo du.

**69. artikulua**

Erruztatua gobernu-batzarreko kidea edo Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusiko kidea baldin bada, berak izango du eskumena dagokion espedientea instruitu eta ebazteko. Espediente hori izapidetzeko, 67. artikuluaren bigarren paragrafoan zehaztutako prozedurari jarraituko zaio; Kontseilu Nagusiko idazkariak berak jardungo du idazkarilanetan, eta instruktorearen izendapena kontseilukideen artean txandaka izendatuko da.

**70. artikulua**

Elkargoetako gobernu-batzarrak ezartzen dituen zehapenen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango du interesdunak Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusiaren aurrean, eta Administrazio Prozeduraren Legean horren inguruan ezarritakoa aplikatuko da.

Kontseilu Nagusiak ezarritako zehazpenen aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du interesdunak Kontseilu Nagusiaren beraren aurrean, Administrazio Prozeduraren Legeak ezartzen dituen arauei jarraituz.

**71. artikulua**

Oro har, Kontseilu Nagusiak eta elkargoetako gobernu-batzarrek agindutako egintzak bide korporatibotik aurkaratu ahal izango dira, aldez aurretiko berraztertze-errekurtsoaren bidez eta gora jotzeko errekurtsoaren bidez, hurrenez hurren, eta bide hori agortzen duen ebazpenaren aurka dagokion errekur-

la contencioso-administrativa, ajustándose el régimen jurídico de la impugnación, según corresponda, a la Ley de Procedimiento Administrativo o a la Reguladora de dicha jurisdicción.

**Artículo 72**

La Junta de Gobierno de los Colegios de Procuradores de España remitirá al Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España certificación de los acuerdos de sanción dictados en materia de responsabilidad disciplinaria por faltas graves y muy graves.

## TÍTULO V

## DE LA MUTUALIDAD DE PREVISIÓN DE LOS PROCURADORES DE LOS TRIBUNALES DE ESPAÑA

**Artículo 73**

La Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España, creada por Orden del Ministerio de Justicia, constituye una Institución de previsión integrada en aquel Departamento, sin perjuicio de las competencias propias de los Ministerios de Trabajo y Sanidad y Seguridad Social, que se regirá por su propio Reglamento, y que habrá de cumplir en la medida de sus posibilidades económicas, los siguientes fines:

a) Fines primarios:

1. Auxilio de defunción.
2. Pensión de invalidez.
3. Pensión de jubilación.
4. Pensión de viudedad.
5. Asistencia al Procurador y sus familiares por enfermedad.
6. Auxilio de orfandad.

b) Fines secundarios:

1. Becas de estudio para hijos de Procuradores.
2. Creación y sostenimiento de clínicas médicas e instituciones escolares.
3. Cualquier otra forma de auxilio y asistencia que se considere conveniente.

tso jurisdikzionala jarri ahal izango da administrazioarekiko auziaren bidetik. Aurkaratzearen araubide juridikoan Administrazio Prozeduraren Legeari edo jurisdikzio hori arautzen duen legeari jarraituko zaio, dagokionaren arabera.

**72. artikulua**

Espainiako prokuradore-elkargoetako gobernu-batzarrek Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusiari bidaliko dizkiote falta astun eta oso astunen ondorioz diziplina-erantzukizunaren arloan agindutako zehapen-erabakien ziurtagiriak.

## V. TITULUA

## ESPAINIAKO AUZITEGIETAKO PROKURADOREEN AURREIKUSPEN MUTUALITATEA

**73. artikulua**

Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitatea, Justizia Ministerioaren aginduz sortua, departamentu haren barruko aurreikuspen-erakunde bat da —Lan, Osasun eta Gizarte Segurantza Ministerioei dagozkien eskumenak gorabehera—, zeina bere erregelamenduaren arabera gidatuko baita, eta bere ahalmen ekonomikoaren arabera xede hauek bete beharko baititu:

a) Xede nagusiak:

1. Heriotza-sorospena.
2. Baliaezintasun-pentsioa.
3. Erretiro-pentsioa.
4. Alargun-pentsioa.
5. Prokuradoreari eta haren senideei gaixotasunagatik laguntza ematea.
6. Umezurtz-sorospena.

b) Bigarren mailako xedeak:

1. Prokuradoreen seme-alabentzako ikasketa-bekak.
2. Klinika medikoen eta eskola-erakundeen sorrera eta mantentzea.
3. Egokitzat jotzen den beste edozein sorospen- eta laguntza-mota.

**Artículo 74**

El ingreso en la Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España es obligatorio para quienes hayan de ejercer la profesión de Procurador en el modo y forma que establezca el Reglamento vigente de dicha Institución.

**Artículo 75**

Además de las cuotas que para el sostenimiento de la Mutualidad habrán de pagar los Procuradores, éstos vienen obligados a adherir en sus escritos, cartas-órdenes, suplicatorios, exhortos y demás comisiones rogatorias en general, una póliza de la cuantía que dicha Mutualidad establezca.

**Artículo 76**

El incumplimiento de las obligaciones, prestaciones y cargas mutuales, constituye falta grave, sancionable por vía disciplinaria en los términos previstos en el artículo 66.2 a) de este Estatuto y con sujeción a idéntica exigencia de previo pago de las cuotas y prestaciones pendientes a cargo del Procurador.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Tanto en lo que afecta a los Colegios actualmente existentes como a los Colegiados y aspirantes inscritos, se respetarán los derechos adquiridos en el momento de entrar en vigor el presente Estatuto.

Cuando las disposiciones que alteren la demarcación judicial no dispongan otra cosa, los Procuradores que con seis meses de antelación vinieran actuando en partidos afectados por aquéllas podrán continuar su ejercicio profesional en el mismo territorio aunque se haya distribuido en Juzgados distintos, con la obligación de residir en la localidad cabecera de uno de éstos y abrir despacho en las poblaciones en que estén instalados los restantes.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

Lo estatuido en los anteriores preceptos se entiende sin perjuicio de lo que sobre esta materia, de acuerdo con la Constitución y los respectivos Estatutos de Autonomía establecieren legítimamente los Órganos de las Comunidades

**74. artikulua**

Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitatean sartzean nahitaezkoa dute indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan prokuradore-lanbidean jardun nahi dutenek.

**75. artikulua**

Prokuradoreek Mutualitatea mantentzeko ordaindu beharreko kuotez gain, beren idatzi, agindu-gutun, suplikatorio, exhorto eta gainerako erregu-eskaeretan Mutualitateak ezartzen duen zenbatekoko poliza bat eransteko betebeharra dute.

**76. artikulua**

Mutualitateko betebeharrak, prestazioak eta kargak ez betetzea falta astuna da, eta diziplina-bidez zehapena jartzea ekar dezake, Estatutu honen 66.2 a) artikuluan jasotako baldintzetan; horrez gain, prokuradoreak aldez aurretik ordaindu beharko ditu ordaintzeke dituen kuota eta prestazioak.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Gaur egun dauden elkargoei nahiz elkargokideei eta inskribaturiko hautagaiei dagokienez, errespetatu egingo dira Estatutu hau indarrean jartzen den unean eskuratuta zeuzkaten eskubideak.

Mugape judiziala aldatzen duten xedapenek bestelakorik xedatzen ez badute, sei hilabete lehenagotik xedapen horien eraginpeko barrutietan jardunean egon ez diren prokuradoreek lurralde berean jarrai dezakete beren lanbidean jarduten, baita epaitegi batean baino gehiagotan jardun badute ere, baldin eta epaitegi horietako bat dagoen herrian bizi badira eta gainerako epaitegiak dauden herrietan bulegoa zabaltzen badute.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurreko xedapenetan ezarritakoa gorabehera, autonomia-erkidegoetako organoek arlo honetan legearen arabera eta Konstituzioari eta dagozkien autonomia-estatutuei jarraituz ezartzen dutena ere bete beharko da, haietan apli-

Autónomas, con referencia a lo dispuesto en las Leyes Generales del Estado allí aplicables y las válidamente emanadas de sus Órganos Autonómicos legislativos en las materias de su respectiva competencia.

## DISPOSICIÓN FINAL

Queda derogado el anterior Estatuto General de Procuradores de los Tribunales de España y cuantas disposiciones se opongan o contradigan lo establecido en el presente.

kagarri diren estatuko lege orokorretan eta eskumena duten gaietan autonomia-erkidegoetako organoek zilegitasunez ezartzen dituztenetan xedaturikoari dagokionez.

## AMAIERAKO XEDAPENA

Indargabetuta geratzen da aurreko Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorra, bai eta oraingo honetan ezarritakoaren aurkakoak diren edo hari kontrajartzen zaizkion xedapen guztiak ere.

# Lexikoa

## a

**abokatutza** abogacía
**Administrazio Prozeduraren Lege** Ley de Procedimiento Administrativo
**ahalorde-emaile** poderdante
**ahalordetze** apoderamiento
**ahozko ohartarazpen** apercibimiento oral
**arau-hauste arin** infracción leve
**arau-hauste astun** infracción grave
**arau-hauste oso astun** infracción muy grave
**aztertzaile** censor

## b

**barruti-epaitegi** juzgado de distrito
**bateraezintasun-kausa** causa de incompatibilidad
**batzar nagusi** junta general
**berraztertze-errekurtso** recurso de reposición
**berrerortze** reincidencia
**birgaikuntza** rehabilitación
**boto-gehiengo** mayoría de votos

## c

***cuota litis* hitzarmen** pacto de *cuota Litis*

## d

**dekano** decano
**dekano-presidente** decano-presidente
**dekanorde** vicedecano, -a
**desgaikuntza** inhabilitación
**desleialtasun** deslealtad
**diruzain** tesorero
**diziplina-erantzukizun** responsabilidad disciplinaria
**diziplina-espediente** expediente disciplinario
**diziplina-zehapen** sanción disciplinaria

## e

**eginbehar korporatibo** deber corporativo
**eginbehar profesional** deber profesional
**elkargokide** colegiado
**erantzukizun penal** responsabilidad penal
**erantzukizun zibil** responsabilidad civil
**erretiro** jubilación
**erruzko delitu** delito culposo
**Espainiako Auzitegietako Prokuradore Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusi** Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España
**Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitate** Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España

**Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusi** Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España
**Estatuaren balore** valores del Estado
**ez diharduen elkargokide** colegiado no ejerciente
**ezintasun fisiko** imposibilidad física

## f

**fidantza** fianza

## g

**gaikuntza** habilitación
**geldiera** suspensión
**gobernu-batzar** junta de gobierno

## i

**idatzizko ohartarazpen** apercibimiento por escrito

## k

**kanporatze** expulsión

## l

**lansari** retribución
**lege prozesal** ley procesal
**lege substantivo** ley sustantiva
**lehen auzialdiko epaitegi** juzgado de primera instancia
**lehentasun** preferencia
**lehia ez-zilegi** competencia ilícita

## m

**magistratu** magistrado

## o

**odolkidetasun edo kidetasun** consanguinidad o afinidad
**ohore** honor
**ordainsari** honorarios
**ordezkaritza** representación

## p

**probintzia-auzitegi** audiencia provincial
**prokuradore-elkargo, prokuradoreen elkargo** colegio de procuradores
**prokuradoretza** procuradoría

## s

**sekretu profesional** secreto profesional

## t

**trataera** consideración

## z

**zehapen** sanción
**zehapen-prozedura** procedimiento sancionador
**Zuzenbideko lizentziadun** licenciado en Derecho

# Léxico

## a

**abogacía** abokatutza
**apercibimiento oral** ahozko ohartarazpen
**apercibimiento por escrito** idatzizko ohartarazpen
**apoderamiento** ahalordetze
**audiencia provincial** probintzia-auzitegi

## c

**causa de incompatibilidad** bateraezintasun-kausa
**censor** aztertzaile
**colegiado** elkargokide
**colegiado no ejerciente** ez diharduen elkargokide
**colegio de procuradores** prokuradore-elkargo, prokuradoreen elkargo
**competencia ilícita** lehia ez-zilegi
**consanguinidad o afinidad** odolkidetasun edo kidetasun
**Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España** Espainiako Auzitegietako Prokuradore Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusi
**Consejo General de los Ilustres Colegios de Procuradores de los Tribunales de España** Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Elkargo Prestuen Kontseilu Nagusi
**consideración** trataera

## d

**deber corporativo** eginbehar korporatibo
**deber profesional** eginbehar profesional
**decano** dekano
**decano-presidente** dekano-presidente
**delito culposo** erruzko delitu
**deslealtad** desleialtasun

## e

**expediente disciplinario** diziplina-espediente
**expulsión** kanporatze

## f

**fianza** fidantza

## h

**habilitación** gaikuntza
**honor** ohore
**honorarios** ordainsari

## i

**imposibilidad física** ezintasun fisiko
**infracción grave** arau-hauste astun
**infracción leve** arau-hauste arin
**infracción muy grave** arau-hauste oso astun
**inhabilitación** desgaikuntza

## j

**jubilación** erretiro
**junta de gobierno** gobernu-batzar
**junta general** batzar nagusi
**juzgado de distrito** barruti-epaitegi
**juzgado de primera instancia** lehen auzialdiko epaitegi

## l

**Ley de Procedimiento Administrativo** Administrazio Prozeduraren Lege
**ley procesal** lege prozesal
**ley sustantiva** lege substantivo
**licenciado en Derecho** Zuzenbideko lizentziadun

## m

**magistrado** magistratu
**mayoría de votos** boto-gehiengo
**Mutualidad de Previsión de los Procuradores de los Tribunales de España** Espainiako Auzitegietako Prokuradoreen Aurreikuspen Mutualitate

## p

**pacto de *cuota Litis*** *cuota litis* hitzarmen
**poderdante** ahalorde-emaile
**preferencia** lehentasun
**procedimiento sancionador** zehapen-prozedura
**procuradoría** prokuradoretza

## r

**recurso de reposición** berraztertze-errekurtso
**rehabilitación** birgaikuntza
**reincidencia** berrerortze
**representación** ordezkaritza
**responsabilidad civil** erantzukizun zibil
**responsabilidad disciplinaria** diziplina-erantzukizun
**responsabilidad penal** erantzukizun penal
**retribución** lansari

## s

**sanción** zehapen
**sanción disciplinaria** diziplina-zehapen
**secreto profesional** sekretu profesional
**suspensión** geldiera

## t

**tesorero** diruzain

## v

**valores del Estado** Estatuaren balore
**vicedecano, -a** dekanorde

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea